ttipi ttapa

304

2001eko ekainak 14 • XXI. urtea



### Bi leitzar Pangea Espedizioan 03

Itsasoaren mailaz beheiti dauden lurraldeak bisitatu ditu Pangea espedizioak. Bi leitzar ere espedizio kideak dira, Aitziber Olano eta Migel Mari Elosegi.



### Ibardingo Quad Igoera ikusgarria 25

Peio Etxegia donamariarrak irabazi zuen ekainaren 3an Ibardingo I. Quad Igoera. Iñaki Txarandaka beratarra, berriz, lehena da Euskal Herriko txapelketan.



# 04 Santxotenaren lanak Bozateko museo handira

airea, lurra, ura...



# Lekarozko igerilekua
# Den-dena dauka







Orain, berdegune gehiago, ura arazteko sistema berria, aldagela zaharberrituak, zerbitzu gehiago, ikastaro eta jarduerak, futbol zelaiak, kirol anitzeko pista, eta abar izango duzu eskura.

## Inoiz baino gehiago goza dezazun.

[illegible]
[illegible] Tel. 948 581 804

## DATUAK...

**• Aitziber Olano 25 urteko leitzarra, Australian eta Ipar Amerikan egon da Pangea espedizioarekin munduko punturik sakonenak ikuskatzen.**

**• Espedizioa Errusiatik itzuli berri da eta laster Asiara, Itsaso Hilara eta Afrikara, Assan lakura joanen dira.**

**• Pangean lanbide ezberdinetako pertsonak bildu dira itsasoaren mailatik behera dauden lur eremuak aztertzeko.**



**Aitziber OLANO** *Pangea espedizioko kidea*

# «Modan dago zortzi milakoak egitea, guk kontrakoa egin dugu»

Rakel Goñi

**ZER DA PANGEA?**

Kontinente bakoitzeko sakonune handiena aztertzeko osatu den taldea da. Itsasoaren mailatik behera dauden lurraldeak ezagutzearekin batera bertako zoologia, botanika, geologia, astronomia, arkitektura eta bertako kulturak aztertu eta konparatu ditugu.

Espedizioaren bultzatzailea Josu Iztueta tolosarra izan da, berak proposatu zigun bidaia. Lehendabiziko atalean Ander Izagirre Donostiarra, Mari Jose Arrieta, Susana Elosegi eta Maialen Lujanbio hernaniarrak, Migel Mari Elosegi leitzarra, Joxemi Saizar, tolosarra, Balentin Dorronsoro Albisturkoa eta ni neu izan ginen parte hartu genuenak. Ondoren Eneko Imaz tolosarra eta Amaia Askasibar sartu ziren Migel Mari eta nire ordez. Ario ezberdinetako jendea bildu gara, kazetariak, arkitektuak, irakasleak, biologoak eta abar.

**ZEINTZUK DIRA BISITATU DIREN TOKIAK?**

Orain arte Ozeanian Eire lakuan egon gara eta Ipar Amerikan Heriotzaren Ibarran. Beste lagunak Peninsula Valdes-en egon ziren orain arte Hego Amerikan zegoen punturik bajuena bezala ezagutzen zena, baina geroago Pangeako kideek konprobatu zuten Patagoniako La Laguna de Carbon zela hura baino bajuagoa. Oraindik beste hiru toki daude bistatzeko. Pangeakideak orain Europan zeuden, Kaspio Itsasoan, eta jadanik Asian Itsaso Hila-ra joan dira. Azkenik, Assan Lakura, Afrikako punturik bajuenera, joatea da helburua. Espedizioa irailean hasi zen eta uztailean amaituko da.

> **«Pangeako kideek konprobatu zuten Patagoniako La Laguna de Carbon zela Hego Amerikako punturik bajuena.»**

**NOLA FINANTZIATZEN DA ESPEDIZIOA?**

Ez dugu inongo laguntza ekonomikorik. Arropa eta materiala erosteko laguntzak izan ditugu eta bestalde Euskal Herriko Unibertsitateak, Donostiako Acuarium-ak, Elhuyar eta Iruñeko Planetarium-ak gurekin kolaboratu dute besteak beste. Baina bidaia eta gainontzeko gastuak bakoitzak bere poltsikotik jarri behar izan ditu.

**ZERGATIK AUKERATU ZENUTEN PUNTURIK BAJUENETARA, SAKONUNEETARA, JOATEA?**

Beno orain moda-modan dago mendira joatea zortzi milakoak egitera. Guk kontrakoa egitea pentsatu genuen, honek errazten zigun ere herrialde horietako eremu handiak ezagutzea.

**NOLAKOA IZAN DA ZURE ESPERIENTZIA?**

Oso esperientzia ona izan da niretzat. Hasieran asko kostatu zitzaidan erabakia hartzea lana utzi behar izan nuelako. Desberdintasun ugari aurkitu nituen Australian eta Ipar Amerikan gure inguruarekin alderatuz, paisaia, animaliak, landaretza, era guzietako jendea...

Amaieran liburu bat idatziko dugu lortu diren datu guziekin, edo antzeko zerbait egitea gustatuko litzaiguke. Itzuli ginenetik hitzaldiak diapositibekin ematen hasi gara jadanik.



Bere arbasoen sortetxetik hurbil gelditukoo dira Xabier Santxotenaren eskulturak, prestatu duen proiektua gauzatzen bada. Baztango Udalak begi onez ikusi du Bozateko lurretan eraikiko den museoa.

RAKEL GOÑI

# 33.000 m²ko museoa egin nahi du Xabier Santxotenak Bozaten

**Xabier Santxotena eskultoreak betidanik bere lanak Arizkungo Bozate auzoan gelditzea nahi izan du. Jesuitek belagi bat saldu ziotenetik museo erraldoi baten proiektuan buru belarri sartu da. 33.000 metro koadroko ibilbidean 8 borda eraikiko dira eta bakoitzaren barnean eskultura familia bat jarriko dute. Honekin batera Baztango ekitaldi kultural ugari bilduko dituen auditoriuma eraiki nahi da.**

Rakel GOÑI

Xabier Santxotena eskultore baztandarrak Artziniegako lantegian zituen lanak Bozate auzora ekarri nahi zituen. Eskulturak jartzeko estalpea eraikitzen hasi behar zenean, Gorrienea museotik hurbil zegoen belagi bat erosteko aukera izan zuen eta geroztik kanpoko museo baten proiektua garatzen hasi zen. Arizkungo Bozate auzoan errepide bazterrean 33.000 metro koadroko belaia izan da hautatutako gunea. Aparkaleku handia eraiki nahi dute lehendabizi. Ondotik ibilbide bat eginen da, proiektuaren erdigune izanen dena. Ibilbidean 8 borda eraikiko dira aitzineko itxurarekin, losaz inguratuta, kristalekin itxiko dituzte eguneko argia probexteko. "Borda bakoitzaren barnean eskultura familia osoak sartuko ditugu. Basoaren eskulturak, Mikeldiak, eskultura geometrikoak eta abar ikusteko aukera izango da" zehaztu zuen eskultore baztandarrak. Ingurua lorategi handi bat izanen da, belagian bertako zuhaitz eta landareak landatuko dituzte. Lurren bazterretik Baztan erreka pasatzen da eta han lamiaren deskantsuko gunea eraikiko da. Bertan Xabier Santxotenaren lami batzuk (eskulturak) errekatik ateratzen jarriko dituzte. "Baztango toponimian, lamiarrita, lamiputzu... aunitzetan ageri diren pertsonai mitologikoak gogoratu nahi ditugu" aipatu zuen Santxotenak. Denetara 2 ordutako ibilbidia izanen da deskantsu guneekin. Eraikinik aipagarriena auditoriuma izanen da. Bertan ikusentzutekoak, hitzaldiak, liburuen aurkezpenak eta eskualdean gerta litezken ekintza kultural ezberdinak bildu nahi ditu. Eraikina Santxotenak egindako burnizko eskultura batetan oinarrituko da.

# Bozateko Gorrienea Museoa



Xabier Santxotenaren Gorrienea etxetik, museo berria eraikitzeko lurrak argi ikusten dira. Eskultoreak bere bizi osoko lana Bozaten bilduko du.

Xabier Santxotenaren ametsa bere lanak Bozate auzoan dagoen Gorriene etxean biltzea zen. Bere aitetxiren sortetxea zena bota eta museo berria eraiki zuen. Ametsa bete ondotik, konturatu zen bertan ez zegoela bere lan guztiak sartzeko lekurik. Orduan proiektu berri baten beharra zegoela ikusi zuen.

Gorrienea museoa 1997an zabaldu zen eta eundaka bisitari joaten dira urtero ikustera. Bisita liburua irakurtzea bertzerik ez dago, txinatarrak ere Gorrienean izan dira! Museoan ere Santxotenaren aita zenaren lanak, eta bereak ziren zurgin lanabesak erakusten dira.

Uztailaren 1etik irailaren 16ra, asteartetik larunbatera, goizeko 11etatik 1era eta arratsaldeko 4etatik 7etara irekita dago Gorrienea museoa. Igande eta besta egunetan 11etatik 2etara eta astelehenetan itxita dago. Sarrera 300 pezetakoa da eta taldeka sartuz gero 200 pezeta ordaindu behar dita. Irailaren 17 tik Ekainaren 30a bitarte larunbatetan 11etatik 1.30etara eta 4etatik 7etara bisitatu daiteke, eta igande eta besta egunetan 11etatik 2etara.



**1997an ireki zituen ateak Gorrienea museoak Arizkungo Bozate auzoan. Geroztik ehundaka bisitari pastu dira handik.**

Proiektuaren bigarren atalean belagiaren ondoko lurrak sartzen dira, hauek komunalak izanik Baztango Udalari eskatu dizkiote bertan zuhaitzen artean ibilaldiak egiteko. Toki horretan kanpoko eskulturak ezartzea espero du Xabier Santxotenak, burdin, brontze, hormigoizko lanak bilduko dira bertan, eguraldi txarrari aurre egiteko gai diren materialez egindakoak.

**Finantziazio pribatuaren beharra**

Finantziazioaren aldetik lurrak Xabier Santxotenak berak erosi ditu baina bordei dagokienez finantziazio pribatuarekin eraikitzea espero da: borda bakoitza eraikitzearen gastuak erakunde batek bere gain hartzea nahi da, ahalik eta jende gehien proiektuan inplikatzeko. Baztango Udalak begi onez ikusi du museo berri eta berezi hau eta bailararen ekonomiarako onuragarria izanen delakoan daude.

Santxotenaren ametsa Gorrienea eraikitzea zen. Museo hau martxan jarri ondotik gainontzeko eskulturak nola ekarri pentsatzen hasi zen. Bere desioa Baztanen, Bozaten aitetxiren etxean ahal bazen bizitza osoko lana gelditzea zen. Bi edo hiru hilabetetan proiektu erraldoia itxura hartzen hasi da eta gaur egun lan horretan sartuta dago Baztango eskultorea buru belarri.

**ONCEK laguntza eskeiniko du**

Gaur egun Santxotenaren lanik handienak Artzeniegako tailerrean ikusi daitezke baina han jada ez dago tokirik. Eskultura astunak dira eta beharrezkoa ikusten zuen handik ateratzea.

Bozateko ibilbidean eraiki nahi diren hasierako 8 bordak gehiago ere izan daitezke, guztia finantziazioaren esku geldituko da. Patrozinadoreen artean ONCE fundazioak jadanik bere laguntza emanen duela aditzera eman du. Ibilbidearen gastuak bere gain hartuko ditu itsu eta ezinduentzat museoa egokitzeko. Ibilaldi osoan baranda edo eskubanda bat jarriko dute itsuek bidea bakarrik egin dezaten. Azalpenak ematen dituzten kartelak ere brailez idatzita egonen dira. "Eskulturak eskuekin ukitzeko aukera izango da. Helburua ezinduendako mugarik ez egotea da" argitu zuen Santxotenak.

Museoarekin lanpostu ugari sortuko dira zuzenki eta zeharka. Gorrienea museoan 2-4 pertsona daude lanean. Museo berrian lorezaintza lanetan bakarrik jende aunitz aritu beharko du. Xabier Santxotena eskultoreak patrozinatzaleak proiektuarekin maiteminduko direla uste du. Bere nahia Udalaren eskutik joatea da baztandar guztiak museoarekin identifikatu daitezen.



**Auditorium-aren diseinua Santxotenaren eskultura honetan oinarrituko da.**



**Ibilbidean gisa honetako zortzi borda eraikiko dituzte.**

# • IRAKURLEAK MINTZO •

## ...ante, Kotto eta ...manol

...satu dire bi hilabete ...daberriko hain polita ...an behar zuen mar...ko 23 egun hura, hain ...gun gogorra eta tristea ...hurtu zenetik.
...oiz erdian ikasi nuen ...u lagun atxilotuak izan ...etela, eta ez nuen deu...ere ulertzen. Ez nuen ...onpreintzen zergatik, ...eren egunero eta hain...tal urtez, ikusten nizuen «herriko saltsan», herri ...nean beti.
...erriko Etxean, Gure ...okoan, kirola egitten, ...ertzieri irakasten eta en...renatzen, bestak anto...atzen... beti bileratan, ...ta xoxik kobratu gabe, ...hainbertze ordu sartzen, ...gauzak antolatzen, Be...ren bizia izateko, eta guk ...denok ongi pasatzeko.
...rain zuetako bi, han ...audete, Espainiako kar...zeletan, eta ez dakigu ...noiz arte. Ikusi bertzerik ...ez da Enekorekin egiten ...ari direna. Prueba bakar ...bat gabe, eta 9 hilabete ...pasatu dire, herritik eta itxetik bortxaz eramana, bere bizia eta bere ikasketak izorratuz.
Kotto eta Imanol, nik eskerrak eman nahi dizkizuet, hain jatorrak izateagatik. Beti prest zineten behar genuen edozein gauzetan laguntzeko, eta zihur ez ginen mendiko bideetan gidatzeko. Eskerrak elkarrekin egin dittugun mendi ibilbideengatik, Baigorri, Goizueta, Iparla... beti alai, umorez, hain ongi pasatuz. Eskerrak baita ere, nere alabak zuekin ezagutu dituelako Euskal Herriko hainbertze mendi eta paraje eder, Auñamendi, Oltzarte, Oladubi...
Ia ametsgaizto hau noiz akautzen den, eta berriz hemen ikusten zattuzten. Mila esker, hain jator, alai, eta langile izatteagatik. Harro nago zuen laguna izateaz.

**Marian IRAZOKI**

## Aresoko Udalak Joxepi Martzoli erantzuna

Maiatzak 3ko Ttipi-ttapan, Joxepi Martzolek Aresoko Udalari Aste Santu eta Gaboneko oporretan informatika eta trikitixa klaseak ematen ez uztea leporatuz idatzi zuen artikuluari erantzunez, Aresoko Udalak zera argitu nahi du:
1. Trikitixa klaseak: Azken urteotan klaseak eskolako gimnasioan eman dire. Aurten, Guraso Elkarteko lehendakariak, Joxepi Martzolek, lau gela behar zituztela esan zuen, eta sinestezina badirudi ere, eskolako sotanoko bi gela, eta bi komuna erabiltzen dituzte, berak leku egokia deritzonez, alegia. Eskola, Aste Santuko oporretan itxita bazegoen, zergaitik ez zituzten klaseak gimnasioan eta ondoan dagoen gelan eman, Bilabonaraino joan beharrean?
2. Informatika klaseak: Udalak, idatzi baten bidez jakinarazi zion Joxepi Martzoli Aste Santuko oporretan eskola itxita egongo zela, eta gimnasioa eta ondoko gela erabili zitzaketela Guraso Elkarteak antolatutako aktibitateak burutzeko. Hala ere, klase hauek bertan behera utzten dituztela bigarren aldia da; hori bai, beraiek nahi dutelako eta ez lekua falta zaielako. Klase hauek herria Udalaren kontra jartzeko aitzakia bat besterik ez dirudite. Nahiago du Aresoko haurrek informatika ez ikastea, klaseak gimnasioan edo ondoko gelan ematea baino.
3. Aresoko Udalak lehengo urteko eta aurtengo kurtsoan ingeleseko klaseak antolatu eta subentzionatzen ditu. Klase hauek gimnasio ondoan dagoen gelan, oso ezaguna den akademi bateko maixu batek ematen ditu.
Hemendik gutxira, gimnasioan eta ondoko gela honetan Aresoko Udalak antolatu eta subentzionatzen dituen informatika ikastaro batzuk emango dira, Interneteko klaseak, batez ere. Gure ustez, argi dago Udalak kulturaren alde lana egiten duela eta Joxepi Martzolek, benetan bere artikuluan esaten zuen bezala «herri honetan kultura maila altxatzearen alde» borrokatuko balu, ez lituzke Udalak antolatzen eta subentzionatzen dituen ikastaro guziak boikoteatuko.
Hau al da etorkizunerako apostua? Hau al da herri honetan kultura maila altxatzearen alde borrokatzea, edo ta Joxepi Martzolen interesen alde lan egitea?

**Joxepa ONSALO**
**Aresoko alkatea**




ESPERANTZA SENDOA
BORTZIRIETAKO ELIZA BAUTISTA
"Jainkoak hautatuak sinesmenera ekartzeko eta beriko biziaren itxaropenean oinarritzen den egiazko erlijioaren egia ezagutarazteko. Gezurrik ez duen Jainkoak mundua izaten hasi baino lehen agindua zuen betiko bizi hori." (Titori Gutuna 1:1a-2)
Jainkoak ez du gezurrik erran... Jesukristo gure esperantza bakarra da.
Bidasoa karrika, 45 Apartado 45 • 31780 Bera (Nafarroa)
Agerra Auzoa (Bera) 948-635224 edo 607-417302
www.ctv.es/USERS/ng

Ostargi Optika
OPTIKO OPTOMETRISTA
Uda honetan erabiliko dituzun **eguzki betaurrekoak** oraindik ez dituzula?
**OSTARGI OPTIKAn** eguzki betaurreko graduatu zein graduatu gabeak topatuko dituzu. Modelo eta prezio guzietan.
Bidasoa karrika, 8 • BERA • ✆ 948 63 07 53

TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA
Toldos Baztan
**Eguzkitik babestekoak (elektriko edo eskuzkoak) • Toldo mugikorrak • Igerilekuetako sareak • Kamioentzako toldoak • Estutzeko uhalak • Aluminio, PVC, Egurra eta Seguridadekoak • Motorizatuak pertsianak altxatu eta jausteko • Kontraleihoak • Estoreak • Eulien kontrakoak...**

☎ 948 63 10 03
Fax: 948 63 10 03
Alkaiaga Ind •Baldrun, 8 • LESAKA - BERA
PERTSIANAK
ERA GUZIETAKOAK, MOTORIZATUAK, ESTOREAK


## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Zazpika, 01eko ekainaren 3a

*«Arraina parrilan erretzean bere puntuan egotea lortu behar da, probatu eta jostatu behar da, egin gabe edo sobera egina gelditu ez dadin. Arraina ongi eginda dago arantzak haragitik errex banatzen direnean. Legatza parrilatik ateratzen dugunean olioa irakiten botatzen diogu arantzetan, barnetik ongi eginda geratu dela bermatzeko.(...) Oinaska entsalada, potxa epelekin egindakoa, dugu lehenengo plateren artean aipagarriena».*

Pabi ELIZETXE
Elbeteko sukaldaria
Zazpika 01-06-03

*«Duela hiru hilabetetik honat ongi nabil, buruz burukoa hasi nuenetik, pixkanaka jokoa eta seguridadea lortzen ari naiz. Lana bukatzea kostatzen zait, baina jendeak badaki bertze jarrera daukadala eta nigan gero eta konfidantza handiagoa dute. Aurtego udan ia egunero jokatu beharko dut eta honetarako zaindu beharko naiz. (...) Txarrena pasatu dela uste dut, bestara ateratzeko beharra kendu zait. Bestarako adikzioa baztertu dut eta jokatu eta entrenatu nahi dut».*

Mikel GOÑI
Oronozko pilotaria
*Gara 01-06-07*

## • 11 GALDERA LABUR •



## Joxe IRIGOIEN *Doneztebeko gaztea*

- **Errekan, eskubaloi jokalari, entrenatzaile eta idazkari izan zara. Zein lanetan gustorago?**
Jokalaria.
- **Eskubaloian edo futbitoan gustorago?**
Igual zait, zerbait egitea da kontua.
- **Bertze kirolik egiten duzu?**
Laxoan aritzen naiz, Doneztebe B taldearekin.
- **Ikusteko kirolik gustokoena?**
Hiru horietatik eskubaloia, bertzenaz ez dut aunitz ikusten.
- **San Pedroetan, lana edo besta?**
Besta, besta!
- **Zer falta zaie herriko bestei?**
Arratsaldeko ekintzak indartzea. Polita izaten da eguneko besta, adin guzietako jendea elkartzen baita.
- **Eta zer dute soberan?**
Bi urtez boxeoa ekarri dute eta ni ez zait sobera gustatzen.
- **Betizuak, plaza barrenetik edo barreratik?**
Barreratik, torero gisa ez dut balio.
- **Dantzari gisa ere aritzen zara. Trapatan edo gaueko dantzak ostatuan?**
Trapatan dantzatzeak izugarrizko ilusioa egiten dit, gauza polita da eta herrikoa, gainera.
- **Bestondoa pasatzeko Iruñeko Sanferminetara?**
Portzikaso bai, ez atzentzeko. Iruñera ez bada Lesakara.
- **Xorroxinen berriemaile zara. Herriko zein berri gustatuko litzaizuke ematea?**
Euskararen aldeko manifestaziogateko autobusean lekurik ez dela.

ANTZOZELAI S.L.
Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317
HARRI NATURALA
ATERATZEA eta LANTZEA
ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK



DROGUERIA MOLINERO
• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •
2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat prezio berezia
Iturlandeta, 6 • ✆ 948 63 02 40 • BERA

J. RAMOS
Zolak akutxilatu eta barnizatzen dittut
✆ 948631342 BERA • ✆ 948637172 LESAKA

OBRA PROIEKTUAK
✓ Etxe berriak eraikitzeko
✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
✓ Urbanizazio proiektuak
✓ Obra-zuzendaritza
BIDASOA
arkitektura bulegoa
Bittirio, 45 • ✆ 948 637 503 • LESAKA

KULTURA



AITOR

Ramon Albistur clown ikastaroaren irakaslea

# Clown antzerki ikastaroa antolatu da Beran

## Uztailaren 22tik 27ra eginen da eta ez da formazio berezirik behar ikastaroan parte hartzeko

RAKEL GOÑI

Axura elkarteak Ramon Albisturren zuzendaritzapean, clown ikastaroa antolatu du Beran. Uztailaren 22an hasi eta 27an bukatuko da. Ikastaroa Julio Caro Baroja kultur etxean eginen da eta ez da antzerki esperientziarik behar partehartzeko. Izena emateko epea ekainaren 22an akautzen da eta bi modutan egin daiteke: ikastaroa eta bazkaria, 51.500 pta/2.100 libera edo egoitza eta gosaria gehituz, 62.000 pta/2.500 libera gostako da. Ikastaroa frantsesez, euskaraz eta gazteleraz egin nahi da, horretarako jendea badago. Taldeak ez dira 12 pertsona baino gehiagokoak izanen.

Partehartzaile bakoitzak bere sudur gorria eta arropa egokia eraman beharko du. Helburua ez da izanen pailazoarena egiten ikastea, bakoitzaren barnean dagoen clown hori kanporatzea baizik. Hiru estilo tartekatuko dira: elkarrekin egindako jokoak, agerturiko inprobisazioa eta hitz emanaldiak. Ikastaroaren zuzendaria Ramon Albistur izanen da, BAI Teatro taldearen zuzendari ezaguna eta Bidasoaldean lanean aritzen den aktore eta zuzendaria. Interesa izanez gero interneten http://axura.biaizpe.net helbidean izena eman dezakezue edo bertzela deitu 948456011 telefonora (Isabel).

# Soulek bigarren saria lortu du Bergerac-en

## Heldu den urtean eginen den lehiaketarako berriz hautatu dute

Arizkungo Cesareo Soule arginak, bigarren urtez jarraian, bigarren saria eraman du Frantziako Bergerac herrian egin den eskultura lehiaketan. Europa osoko eskutoreak bildu ziren han eta hiru egunetan zehar eskultura bana egin behar zuten. 350 kiloko harria tokatu zitzaion zozketan Cesareori, denetan haundiena. *«Idei bat izan dezakezu baina gero tokatzen zaitzun harrira moldatu behar duzu, bazkaldu gabe gelditu nintzen lana akitzeko harria haundiegia zelako»* aipatu zuen Soulek. Aurtengo gaia organoen donazioa izan zen. *«Nire ideia natura gizakiarekin parekatzea zen. Zuhaitzak gero eta gehiago inartzen ari dira, kasurik egiten ez diegulako, pertsonei antzekoa gertatzen zaie. Bi enbor egin ditut, batek hil baino lasterrago bere bihotza ematen dio bertzeari»* azaldu zuen Cesareo Soulek. Heldu den urtean egingo den lehiaketarako berriro hautatu dute eta bertan egonen dela argi du, bidaia egiteko laguntza ekonomikorik ez badu ere.




ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

bortzIRUDI
BERA
FOTOKOPIAK
ENKUADERNAZIOAK
PLASTIFIKAZIOAK
FAXA E-MAILA
SKANNERRA
PAPERTEGIA
ARGAZKI MUNTAIAK
DISEINU GRAFIKOA
INPRENTA LANAK
SERIGRAFIA
ERROTULOAK
PUBLIZITATEA
Eztegara 26 behea
Tel.- Faxa: 948 63 15 21

Alberto RETEGI
abokatua
Altzate 17
BERA
✆ 948 630 763

Iriarte-Echandi, S.L.
• Aholkularitza
• Artekaritza
• Aseguruak
Kantonberri 1 • BERA • Tel eta Faxa: 948 631169

SAROBE
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 809 - BERA

BERA

# Zuzendaritza berria izanen du Gure Txokoak hurrengo 2 urteetan

## Ander Altzuri izanen da elkarteko lehendakaria

Asier GOGORTZA

Joan den ekainaren 1ean lamotenean egindako batzarrean hurrengo bi urteetan zuzendaritza batzordea osatuko duten kideak aurkeztu ziren. Bertan 20 bazkide bildu ziren, eta orain arte zuzendaritzan egon diren kideek lekukoa pasatu diete bertze sei gazte hauei.

Ander Altzuri izanen da elkarteko lehendakari berria, Iñaki Iriarte, Iñaki Goia eta Gorka Ibargoien berriz lehendakariordeak, eta idazkari lanak Joseba Lasarte eta Raul Garciak eginen dituzte. Kultura sailean Gorane Artieda sartuko da zuzendaritza berriarekin batera, eta gainerako lanetan orain arteko bazkideek segituko dute.



Asier G.

Zuzendaritza berria osatuko duen gazte taldea.

Zuzendaritza berriko kideek adierazi digutenez orain arteko lanak mantentzeaz gain Gure Txokoa Eguna antolatzea eta elkartearen web orria prestatzea izanen dira asmo nagusietako bi. Horrez gain bazkideentzat aktibitate desberdinak antolatzea eta gazteentzat kirol ekitaldiak bultzatzea ere burutan dute. Gure Txokoa osatzen duten bokalia guziekin harremanak sendotzea litzateke bertze helburuetako bat.

## Eskubaloia

### *Irungo CD Bidasoak antolatutako txapelketa batean jokatu zuen Berako mutiko talde batek*

Irunen egiten den Eduardo de la Puenteren omenezko V. tomeoan lehiatu zen Berako alebin talde bat maiatzean. Denetara lau partidu jokatu zituzten, 3 galdu eta 1 irabaziz. Sailkapenean 14. gelditu ziren 18 taldetik. Gainerako taldeek urte osoan entrenatzen dutela kontuan izanik eta eurek urtean bi aldiz soilik, balorazio positiboa egin du Leire Portu entrenatzaileak, eta heldu den urterako taldea sortzeko gogoarekin agertu dira denak. Beñat Iturria, Jonesteben Agara, Julen Jimenez, Jon Zelaieta, Iñaki Cortizo, Julen Aranburu, Mikel Morcillo, Gorka Prieto eta Iñigo Aldazabalek osatzen zuten taldea. Animo eta segi horretan!

FLASH

### *Goikok irabazi du bestetako kartel lehiaketa*

Martin Goikoetxea argazki hau izanen da bestetako kartelean eta programaren azalean agertuko dena.



### *IV. Herri Lasterketa*

Ekainaren 16an Berako Kiroldegian dute hitzordua adin guzietako lasterkalariek. Haurrak arratsaldeko 5,30etan abiatuko dira eta nagusiak 6,30etan.

### *Mendi martxa*

Bukaera polita izan zuen preso eta errepresaliatuen aldeko mendi martxak. Bortz herrietako mendietan barna ibili ondotik San Miguel zubian egin zitzaien harrera, txalaparta-doinu, aurresku eta bertsolariekin.



Javier Manterola
TEKNIKO INSTALATZAILEA
iturgintza • gas • kalefakzioa
Tfnoa: 948 630 031 • BERA

JAIONE - GOZOTEGIA
Altzate, 10 • 948630786 • BERA

ALZURI
• Sukalde tresneria eta opariak
• Landare eta loreak
Tel.: 948 630 370 • BERA

BAR BOTXO OSTATUA
948630052 • Zalain • BERA

LESAKA

# Urrezko eta Diamantezko Ezteiak ospatzeko bazkaria ortziralean

## Lau bikotek 50 urte eta bertze bik 60 urte esposaturik bete dituzte

Aitor AROTZENA

Ortziral honetan, ekainak 15, eginen da Nafarroako Kutxaren Urrezko Adina elkartekobazkideen Anaitasun Besta. Urtero bezala, bere ezkontzaren 50. urteurrena, Urrezko Eztaiak, egiten dutenei omenaldia eskainiko zaie. Aurten lau izanen dira omendutako bikoteak: Guillermo Agara Mantorena eta Mª Concepcion Esparza Viela; Fidel Aranburu Altzugarai eta Encarnacion Altzugarai Portu; Santiago Telletxea Telletxea eta Francisca Ordoki Ituria eta Santiago Zapirain Telletxea eta Avelina Altzugarai Portu.

Baina horretaz gain, 60 urte ezkondurik (Diamantezko Eztaiak) bete duten bi bikoteri ere omenaldia eskainiko zaie aurten lehen aldiz: Vicente Otxoteko Iratzoki eta Maria Josefa Ordoki Almandoz eta Modesto Eneterreaga Esparza eta Maialen Irigoien Etxabide. Besta egun honen egitaraua eguerdian txistulariek eginen duten ibilaldiarekin hasiko da. Jubilatuen egoitzan ongietorria eskainiko zaie agintariei eta handik elizara joanen dira, meza aditzera. Mezan, omendutako bat, Guillermo Agara, eta Larrane kantuan, Txoperena organua joz eta Santiago eta Rekondo txistua jotzen ariko dira. Luis Olaetxea «Makuko» bertsolariak ere parte hartuko du. Mezatik frontoian eginen den bazkarira joanen dira eta bazkal ondoan eskainiko da omenaldia. Besta akautzeko, Europa taldearekin dantzaldia izanen da. Bazkarira azaldutakoen artean bi telebista zozketatuko dira.



ARTXIBOKOA

**Urtero bezala, frontoiko bazkalondoan omenaldia eskainiko zaie Urrezko Ezteiak ospatzen dituzten senar-emazteei. Aurten, 60 urte esposaturik bete dituztenek ere omenaldia jasoko dute.**

## Skeet Olinpikoa

### *Jone Fagoagak Espainiako Kopa irabazi du emakumeen artean*

Jone Fagoagak tiralariak garaipen berri bat lortu zuen Skeet Olinpikoan, maiatzaren 28an Zaragozan jokatu zen Espainiako Erregearen Kopan. Lesakarra txapeldun izan zen emakumezkoen artean eta 21 urtez beheitiko tiralariak biltzen dituen junior kategorian, mutilekin batera arituta, bigarren izan zen. Orain, ekainaren 24tik 30era Italiako Lonato hirian jokatuko den Munduko Koparen proba batean hartuko du parte Espainiako selekzioarekin. Jonek adierazi digunez, lehenbiziko aldia da Skeet olinpikoan nazioarteko proba batean parte hartzen duela eta ez du emaitza onegirik espero: *«Esperientzia hartzera joanen naiz».*



PERTSONAIA

Martxel RODRIGUEZ

### *Euskal Herriko aurresku txapelduna*

Maiatzaren 19an Errenterian egindako Euskal Herriko aurresku txapelketaren finalean, 7 eta 11 urte bitartekoen artean txapeldun suertatu zen Martxel Rodriguez dantzari lesakarra. Guzira 80 dantzarik parte hartu dute Martxelen kategorian eta horietako hamabortz allegatu ziren finalera. Errenterian baino lehen Altsasu, Beasain, Oiartzun eta Legazpian aritu zen Martxel finalerako sailkatzeko. Finalera allegatzearekin kontent zegoen Martxel, baina ustekabean txapela ere jantzi zuen. Martxelek erran digunez, *«aurreskua eta euskal dantzaz gain, jazz eta balleta ere ikasten dut. Egunean ordu erdi egiten dut, baina hagitz indartsu. Sei urtetan hasi nintzen fandango txapelketan parte hartzen, Amaia Eneterreagarekin».* Dantza egitea aunitz gustatzen zaio Martxeli eta txapelarekin hagitz kontent dago.


Lorezaina Gerezi
Loreak eta landareak
LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tlnoa.: 948 637 514
Beheko Plaza 8, LESAKA

Ana Janaridenda
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
948627573 • LESAKA

kixkur
ileapaindegia
Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 behea
LESAKA

ETXALAR

# Igande honetan XIV. Haurren Eguna eginen da

## Etxalarko II. Trikitixa txapelketa ekainaren 28an izanen da

**Joseba eta Nerea**

Ekainaren 17an izanen da Haurren eguna, hamalaugarren urtez. Landagain eskolako haurrek beraien eskulanak paratuko dituzte frontoian ikusgai. Eguerdi aldera, ipuin topaketaren sari-banaketa eginen da, ondotik bazkariari bide emateko. Arratsaldeko 5etan "Kollins Clown" pailazoen ikuskizuna izanen da.



ARTXIBOKOA

Nagore eta Oihana, joan den urteko txapelketan.

### *Trikitixa txapelketa*

Etxalarko II. trikitixa txapelketa eginen da ekainaren 28an. Arratsaldeko 7etan emanen zaio hasiera plazan eta hauek dira partehartzaileak: Oihana eta Nagore (Lesaka-Etxalar) Nekane eta Jasone (Lesaka-Etxalar) Joseba eta Nerea (Etxalar-Lesaka) Estitxu eta Estitxu (Doneztebe-Lesaka) Maitane eta Aiora (Ataun) Leire eta Amaia (Anoeta-Añorga) Josu eta Nagore (Arama-Segura) Ioar eta Iñigo (Lesaka-Elgorriaga). Denak 12 eta 18 urte bitartekoak dira.

### *Eskola euskararen alde*

Denok ezagutzen ditugu azken aldi honetan Nafarroako Gobernua euskarari egiten ari zaizkion erasoak. Horien artean irakaskuntzari zuzendutako dekretuaren zirriborroa dela eta, hainbat eskoletan horren kontra agertu dira, Landagain barne. Maiatzaren 25ean, eskolak 2 orduko geldialdia egin zuen eta arratsaldean Iruñeko manifestazioan erabiliko zituzten dortsal eta kartelak prestatu zituzten bertan. Iruñera joateko autobusa antolatua bazegoen ere, greba zela eta kotxez joan behar izan zuten. Partaidetza handia izan zen guraso, haur nahiz irakasleen aldetik. Herriko trikitilarien laguntzaz joan ziren, eta denen artean giro polita sortu zuten. Kontxexi Arangoa irakaslearen hitzetan, «*erantzun ona jaso genuen, partaidetza handia izan zelako. Balorazio positiboa egiten diogu eta hurrengo ekitaldietan parte hartzeko gonbitea luzatzen dugu Landagain eskolatik*».

FLASH

### *Igerilekuen irekiera*

Ekainaren 23an irekiko dira igerilekuak, Itziar Iriarteren eta Nagore Ansalasen ardurapean. Sasoiko bonoen prezioak: 7-10 urte bitarteko haurrentzat 1.550 pezeta, 11-16 urtekoentzat 2.575 eta 16 urtetik gorakoentzat 5.000 pezeta. 7 urtetik behetikoek sarrera debalde dute. Irailaren 2a arte egonen dira zabalik.

### *Kanpaldiak Landagainen*

Ia kurtso bukaerangaudela eta, maiatzaren 23, 24 eta 25ean Landagain eskolako hirugarren zikloko haurrak Zuazara joan ziren. Lehenengo eta Bigarren ziklokoak Lizarran izan ziren 30, 1 eta 2 egunetan eta Haur Hezkuntzakoak Orion 1 eta 2an. Denak ere, Bortzirietako beste eskolekin elkartu ziren.

### *Larraburuko batzar orokorra*

Larraburua jubilatu-elkarteak urteroko batzar orokorra burutu zuen ekainaren 3an. Bileraren ondotik, aurten 10. urtea dutenez, bazkaria egin zuten. Bertan, 60 lagun inguru bildu ziren eta ondotik Ramonbioren musika-doinuekin gozatzeko aukera izan zuten.




BORTZIRI
UNSION ANAIAK
sukalderako haltzariak
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxa: 948 637 266

ANTOJOS
boutique pre-mama
Zatoz ezagutzera taila handiaren bilduma berria!
(ez da pre-mama)
Arbelaiz Jauregia • Iglesia karrika 6
(Nafarroako Ibilbidearekin eskon egiten)
Tel.-Fax: 943 63 41 70 • IRUN

TXIRULA
loredenda
Albistur, 39-K
☎ 627542
LESAKA
• bitxikeriak •
• opariak •
• enmarkazioak •

IGANTZI

# Biltoki elkartea itxita egonen da obrengatik hilabete batez



Ezezkoa eman dio ORSAri Ingurumen Departamentuak

Oskar TXOPERENA

Itxita egonen da gutienez hilabete batez Biltoki Elkarteko egoitza. Hasiak dira azkeneko batzar orokorrean onartu ziren obrak egiten: sukaldea moldatu, armairu eta tresneri berria paratu, etabar. Maiz samar ibiltzen direnek falta handia sumatuko dute, baina, bazuen Biltokiko sukaldeak harroaldi baten beharra. Bertzalde, Anuntxi Txoperena hemendik aintzinera elkarteko garbitasunaz arduratuko dela jakin ahal izan dugu.



Oskar TXOPERENA

**Eskolako iazko eskursioa Baionatik hurbil dagoen ur-parkera egin zen. Argazkian ikusten den bezala, jende multzo polita animatu zen. Aurtengoa Gipuzkoa aldera eginen da, ortziral honetan berean. Goizez barrengo herriren bat bisitatuko da -Zerain seguraski- eta arratsaldean, eguraldiak laguntzen badu behinipein, Zarautzera joatekoak dira, hondartzan ordu batzuk pasatzera.**

## *Abesbatza*

Joan den larunbatean, ekainak 9an, Zugarramurdira egitekoa zuen Igantziko Abesbatzak urtero egin ohi duen ateraldia. Larunbat ilunabarreko meza abestu ondotik, kontzertua zuten eskeintzekoa bertako elizan. Ortziral honetan eginen den entsaioarekin, urtero bezala, oporraldi ttiki bat hartuko dute abuztuko erdialdera arte.

## *Fabrikari ezezkoa*

Itxuraldaketa haundia izan du azken bi asteotan Berrizaungo industri berriaren aferak. Nafarroako Gobernuko Ingurugiro Departamentuak ezezkoa eman dio asfalto fabrikaren proiektuari. Bere erranetan, "fabrika hurbilegi dago auzoko etxebizitzetatik eta ez ditu beharrezkoak diren neurriak betetzen, ez soinuari dagokionez, ezta airearen kutsadurari dagokionez ere". Orain, pentsatzekoa denez, epe bat izanen du ORSAk erabakia errekurritzeko. Berrizaundarrak, noski, pozik agertu dira erabakiarekin.

Rafa: 600 819 640
Jose: 666 235 466
PINTURAS LEGUIA S.L.
Eztegara 26, 2.C - BERA

ZALAIN JATETXEA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Zalain Auzoa
✆ 948631106
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

XATURETXEA JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

SALAZONES UDANA, S. L.
Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta hozgelatua, erabiltzeko prest
Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

ARANTZA

# Euskararen dekretuari buruzko solasaldia ortziralean Zahar-Txokon

## Andres Iñigo euskaltzainak eskainiko du, Euskara Batzordearen eskutik

Garbiñe eta Elixabet

Nafarroako Gobernuak euskarari buruz atera duen dekretu berriari buruzko solasaldiak antolatu ditu Bortzirietako Euskara Batzordeak. Dekretu honek, maila auniztan, baina batez ere irakaskuntzan kalte handiak eraginen dituela adierazi du Euskara Batzordeak. Honen berri emateko, ortziral honetan, ekainak 15, Andres Iñigo euskaltzainarekin solasaldia antolatu da herrian. Arratsaldeko 8etan Zahar Txokon gai honi buruzko argitasun gehiago emanen dituzte.



ARTXIBOKOA

**Paris, Belgika eta Holandara hamar eguneko bidaia eginen du herritar talde batek ekainaren 18tik 27ra. Tours, Paris, Eurodisney, Brusela, Amsterdam, Rotterdam, Poitiers eta Bordele bisitatuko dituzte. Argazkia, duela bi urte egindako bidaian ateria da, Granadako Alhanbran.**

### *Udako lan poltsa*

Bertizko Partzuergoak eta Cederna-Garalurreko lan orientazio eta kudeaketarako zerbitzutik, udaro bezala, ostalaritza eta merkataritzan lanean aritzeko udako lan poltsa antolatu du. Bertan apuntatu nahi duenak Herriko Etxeko idazkaritzan dagoen galdetegia bete behar du edo Orientazio Zerbitzuaren telefonora deitu (619829289).

FLASH

### *Xabier Altzuri zinegotzi berria*

Amaia Telletxea EHko zinegotziak bere kargua utziz geroztik Xabier Altzuri dugu zinegotzi berria. Ekainaren 1eko azken udal batzarrean hartu zuen kargua.

### *Baserrietako bideak moldatzeko lanak*

Baserrietako bideak moldatzeko lanak emateko bigarren deialdia egin behar izan du Udalak. Oraingo honetan Sasoi S.L. enpresak hartu du. Udalak ahobatez erabaki zuen lanak Donamariako enpresa honi ematea, 100 milioitik goitiko aurrekontuarekin.

### *Kanposantua handitzeko lanak*

Kanposantua handitzeko laneko ere bizpahiru aldiz egin da lehiaketa deialdia. Inork ez du proposamenik aurkeztu eta Udalak aurrekontua %10 jaustea erabaki zuen, 20.453.337 pezetatan utziz.

ALBERGEA
JATETXEA
ATERPE
ALBERGEA
✆ 948 634179
ARANTZA

KATEA - BIKE
Kontonberri 1, bis • BERA
Fax - Tel: 948-631218
Bizikleta Tailerra
errepide, mendi, trekking
eta haurrendako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Salmenta eta konponketa

IRU BIDE
Tfnoa: 948 637 1..
LESAKA


LESAKA

ARTEKARI
TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA
LESAKA:
• Astelehenetik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050
BURLATA:
ARTEKARI, S.L., ✆ 948133328•133346. Faxa: 948133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA
Langile Autonomoak
Nekazariak eta mendi-langileak
Nominak eta Aseguro Sozialak
Lan-kontratutarako laguntzak
Enpresa berri ezberdinen sortzea
Diru-laguntza ezberdinak
Kontabilitateak
IVA eta IRPF
Errenta aitorpenak
Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
Bideragarritasun planak

H. Lopez
iturgintza
Tel.: 948 45 21 ..
Mug.: 617 34 99 44
NARBARTE

MALERREKA - BERTIZARANA

# Elkarte eta talde aunitzek sinatu du Oinarriak erakundearen idatzia

## Nafarroako Gobernuak euskararen aurka daraman politika salatzen du

Tipi-tapa

Nafarroa osoan euskararen ofizialtasuna aldarrikatzeko eta Nafarroako Gobernuak euskararen aurka daraman politika salatzeko, Oinarriak erakundearen kultur zikloaren baitan zenbait jarduera burutu dira Malerreka eta Bertizaranako herrietan. Gainera, Doneztebeko Oinarriak taldeak idazkibat prestatu zuen, Nafarroako Gobernuaren politika hori salatuz, «nafarron hizkuntz eskubideak gehiago murrizten dituelakoan. Idazki horren aldeko sinadura eman dute Malerrekako talde eta elkarte hauek: Malerrekako apezak, Nafarroako Herri Kirol Federazioa, Bidasoa-Berroaran Ehiztarien Elkartea; Donamaria-Gazteluko ehiztariak; Sunbillako eskola, Guraso Elkartea, Ulibeltzak elkartea eta ehiztarien elkartea; Iturengo eskola, Guraso Elkartea, Ibintza taldea eta joaldunen taldea; Zubietako joaldunen taldea; Saldiasko eskola; Eratsungo eskola; Beintza Labaiengo eskola, Urradi Guraso elkartea eta Itur-ondo elkartea; Oitzeko elkartea; Legasako eskola; Narbarteko eskola eta Guraso Elkartea; Doneztebeko San Migel eskola eta Mendaur DBH Institutua, Guraso Elkartea, Arkupeak elkarteko Felipe Ganboa eta zuzendaritzako bertze 6 kide, Kasino elkartea, Erreka elkartea, Ezpelura emakumeen taldea, Txaruta pilota elkartea, Musika Eskola, ehiztariak, Langarra euskara taldea eta Malerrekako IKA Euskaltegia.





TIPI-TAPA TB

**Doneztebeko Judo eskolakoek emaitza ederrak eskuratu dituzte Nafarroako txapelketetan. Ttikienez aitzinera hasita, alebinetan, 30 kiloz beheitiko kategorian Josetxo Ezkurrak brontzeko domina jantzi zuen. Infantiletan, Itziar Jorajuriak (eskuinean) lortu zuen emaitzarik onena, urrezko domina jantzi baitzuen 57 kiloz beheitiko kategorian eta Espainiako txapelketan parte hartu zuen. Niko Mindegia eta Jon Etxekoloneak zilarrezko dominak eskuratu zituzten 46 eta 60 kiloz beheitiko kategorietan. Azken kategoria horretan brontzezko domina lortu zuen Ibai Mariezkurrenak. Mikel Telletxea hirugarrena izan zen Nafarroako Kopan. Kadetetan, azkenik, 48 kiloz beheitiko kategorian, zilarrezko domina jantzi zuen Noelia Ariztiak. 81 kiloz goitiko kategorian, Juanjo Perez de Harriluzeak brontzea eskuratu zuen. 66 kiloz beheitiko kategorian, Damian Iribarren ez zen finalean sartu, baina brontzezko domina lortu zuen Nafarroako Kopan.**

FLASH

### *Donamariako usategien enkantea*

Donamariako Udalak bortz urterako emanen diren usategien enkantea eginen du, uztailaren 28an, eguerdiko 1etan. Golbaiko hamar postuen haserako prezioa 2.600.000 pezetakoa da; Uztalakortako zazpi postu 1.400.000 pezetatan aterako dira; Bidakorriko hamahiru 1.500.000 pezetatan; Labeaga-Amezketako hamabortz 600.000 pezetatan; Txarutako bortz 450.000 pezetatan; eta Ubedo-Argibeleko hamalau 400.000 pezetatan.

### *Zubietako Udala EHNErekin bat*

Abeltzain sektorea bizitzen ari den krisia dela eta, Nafarroako EHNE sindikatuak bidalitako idatzia ahobatez onartu du Zubietako Udalak. Honela, arazoan inplikaturiko erakunde eta taldeekin elkar lan egiteko interesa azaldu du Zubietako Udalak, haien proposamen eta aldarrikapenei sustengua emanez. Modu berean, Nafarroako Gobernuari neurri ekonomikoak hartzea eskatu dio, abeltzainak baitira egoera larriena sufritzen ari direnak.



APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

GAZTANDEGIA
Lizun
Etxeko
Ardi Gazta
Pleteneko borda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

ETXANDI TXOKO
jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91

SALDIAS

# Sanjuan festak ekainaren 22tik 25era

Igande arratsaldean aizkora apostua jokatuko da eta asteburu osoan pilota partiduak



1966. urtean Inaxio Telletxea, Juanita Juanenea, Juan Bautista Elizalde, Basilio Erasun eta Pedro Urrutia.

**Ostirala Ekainak 22**

**20:00etan** ohiturako Baztan Zopak herriko ostatuan. **Gauez** dantzaldia MODESTOrekin.

**Larunbata Ekainak 23**

**9:00etan** argi soinuak herriko trikitilariekin. **11:00etan** plater hausketa. **11:30etan** erremonte partidua eta eskuz pilota partiduak. Infantilak: Urrutia-Urrutia/Madariaga-Juanenea. Gazteak: Urrutia-Ezkurra/Arregi-Iraola.

**17:00etan** herri kirol txapelketa. **18:30etan** pilota partidua. Afizionatuak: Elizalde-Eskudero/Arraztoa-Arraztoa.

**20:00etan** San Juan suak. Arratsaldez eta gauez GOSPEL taldea.

**Igandea Ekainak 24**

**9:00etan** argi soinuak herriko trikitilariekin. **11:30etan** Meza Nagusia San Juanen ohorez. **12:30etan** pilota partiduak. Gazteak: Madariaga-Juanenea/Gonzalez-Iraola. Afizionatuak: Goizueta-Mitxeo/Berho-Huarte.

**18:00etan** aizkora apustua: Mindegia-Jaunarena/Larretxea-Senosiain. Arratsaldez eta gauez MODESTO.

**Astelehena Ekainak 25**

**9:00etan** argi soinuak trikitilariekin. **11:00etan** herriko mus txapelketa. Goiz-arratsaldez umeen jokuak. **14:00etan** herri bazkaria. Arratsaldez eta gauez MODESTO.

CREDICOCHE

2001 JUN

Erosi zure autoa gaur.

2001 NOV

Eta ez hasi ordaintzen azaroa bitarte:

Orain baldintzarik hoberenetan erosten ahal duzu autoa. Nafarroako Rural Kutxaren CrediCoche-rekin. Kreditu erraz honek sekulako finantziazioa eskaintzen dizu, berehala. Eta denetan hoberena: orain eskatzen baduzu, ez zara ordaintzen hasiko azaroa bitarte. Inork ez dizu hain erraz jarriko.

*Garrantzitsuena zu zara*

NAFARROAKO RURAL KUTXA

GOIZUETA

# Paleta maratoia Umore-Onarekin

Ekainaren 30ean jokatuko da eta aste bat lehenago bukatzen da izen emateko epea



Pili Z.

**Ekainaren 3an ospatu zuten lehen jaunartzea zortzi neska-mutiko hauek.**

Esteban AROTZENA

Orain arte sekulan herrian egin ez den bezalako ekitaldia antolatu du Umoren Ona elkarteak ekainaren azken larunbaterako: paleta maratoia. Gizonezkoen eta emakumezkoen bikoteez gain, mixtoek ere parte hartzeko aukera izanen dute gomazko pilotarekin jokatuko den txapelketa honetan. Izena emateko zerrendak, berriz, Urrutonean eta Amaiarenean egonen dira ekainaren 23a arte. Beste xehetasun batzuk aipatuz, esan, partidak 22 tantutara jokatuko direla, eta maila bakoitzeko txapeldunen saria beraiek aukeratutako herriko jatetxe batetan afaria izanen dela. Dena den, parte hartzeko deialdi berezia luzatu du Umore Onak, ez baldin bada bikote kopuru polit bat apuntatzen ez baita eginen maratoi hau.

### *Sortzen eta Usurbilgo pilota txapelketetan txapeldunak*

Pilotarekin segituz, baina eskuzko espezialitatera igaroz, ekainaren 3a egun oparoa izan zen Angel Salaberriak zuzentzen duen pilota eskolako hainbat kiderentzat. D ereduko gurasoen elkarteak biltzen dituen Sortzen erakundeak antolatutako txapelketaren finalak jokatzen ziren egun horretan Orkoienen eta bertan irabazle suertatu ziren Goizuetako bi bikote: Jon Zozaiak eta Julen Arotzenak eta Oier Apezetxeak eta Xumar Bakerok osatutakoak hain zuzen. Ekaitz Narbarte eta Iban Eskudero ere han izan beharrekoak ziren, baina ordu beretsuan Usurbilgo torneoko finala zutenez, Gipuzkoara joateko erabakia hartu zuten, baita aisa aski irabazi ere jokoan zeuden zapelak.

### *Euskal karnetaren aldeko mozioa onartuko da ekainaren 23an*

Ekainaren 23an, eguerdiko 12etan, Umore Ona elkartearen egoitzan (orain dela 300 urte Herriko Etxea zena) burutuko den osoko bilkuran EHNAren (euskal karneta) aldeko mozioa onartuko du udalbatzak, baita euskal naziotasunaren agiri hau tramitatzeko bulego bat irekitzea ere. Herritar guztiak gonbidatuak dauden batzar hau festa bihurtu nahi du Udalak eta onarmenaren ondoren ez da musika edo hamaiketakorik faltatuko.

ARESO

# Mikel Aingeruaren bisita izan genuen maiatzaren 27an

Santa Kruzeko baselizara erromeria egin zen



Juana Mari Saizar

**Mikel Aingeruak herrira egin zuen bisita Igokunde egunean.**

Juana Mari SAIZAR

Maiatzaren azkeneko igandean, Igokunde egunean hain zuzen, Mikel Aingeruaren bisita izan genuen herrian. Bera agurtu ondoren, Santa Kruzeko ermitara erromeria egin zen, bidean zehar gurutzbidea eginez. Eukaristia ospatu ondoren, Amabirjinari loreak eskaini eta bukatzeko hamaiketakoa, gazta, txorizoa, ogia eta ardoarekin.

### *Maitane Gereño Gipuzkoako igeriketa txapelketan*

Maitane Gereño, Tolosako Igarondo igeriketa klubean aritzen da. Ekainaren 2an Gipuzkoako txapelketan hamabi urteko igerilari konpleto edo osoena erabakitzeko proban laugarrena izan zen, 5 minutu 54 segundu, 39 zentesimako denborarekin. Lau estilo ezberdinetan (crowl, bizkarka, braza eta tximeleta) ehuna metroko probak egin behar zituzten eta denbora guziak batu. Zorionak Maitane eta segi aurrera!

LEITZA

# 47 eguneko grebaren ondotik lanean hasiak dira Sarriopapelen

## Plazaolarako lanak eta idatziak ekainaren 30erako aurkeztu behar dira

Joseba AZPIROZ

Sarriopapeleko langileek lanera itzultzea erabaki zuten garagarrilaren 6an egindako batzarrean, 47 egun greban egin ondoren. Aipatutako batzarrean 235 langileek lanera itzultzeko aldeko botoa eman zuten, 66 kontra azaldu ziren, eta 11 txuri eta 5 baliogabeak izan ziren. Enpresaren eskaintzaren datu garrantzitsuenak dira: Konbenioa (lehen enpresa-paktua) hiru urterako da; urteko 8 orduz murriztuko da ordu kopurua; aurtengo soldataren igoera % 4'8koa izanen da eta datozen bi urteetan, IPC delakoa eta honen puntu bakoitzarengatik % 0'25 (IPC gainetik % 0'5a ziurtatzen diete).

Horretaz gain etekinen pagan 13.000 pezeta gehiago jasoko dituzte. Komiteko partaideek eskertu nahi izan dute herritarrek, talde politikoek eta giza-taldeek erakutsi duten elkartasuna.



Arrasponda

**Aurreko urtean 900 lagundik gora bildu baziren San Juan bezperako afarian aurten, larunbata izanik, zenbat bilduko ote dira? Badaezpada ere mila eta berrehun aulki eskatu behar dituzte. Otordu goxoa, giro ona, sua, txaranga, ... besterik behar al da?**

### *Plazaola aldizkaria*

Aurrera Kirol Elkarteak Plazaola aldizkariaren lehiaketaren oinarriak argitaratu ditu. Gaia, Leitzako festak izanen da. Lanak garagarrilaren (ekaina) 30a baino lehen aurkeztu behar dira. Bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ditzake eta hauen neurriak gehienez 50x65 zm. izanen dira. Epaimahaia Aurrerako sei bazkidek osatuko dute eta sariak San Tiburtzio egunean emanen dira. Aurkeztutako kartel guztiekin erakusketa eginen da Aurreran, uztaren (uztaila) batean.

Bestalde, Plazaola aldizkarian idatzirik argitaratu nahi izanez gero, garagarrilaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira (disketean bada hobe). Idatzien egileek beraien izen abizenak eman beharko dituzte nahiz eta aldizkarian ezizen batekin atera daitezkeen.

FLASH

### *Kirol eta kultur jardunaldiak*

Udalbiltzak kirol eta kultur jardunaldietarako deialdia zabaldu du. Hauek ekainaren 16 eta 30ean izanen dira, Donostian. Zinegotzi, teknikari eta kultur eta kirol eragile guztientzat (herrian bi esparru hauetan lanean aritzen direnentzat) zabalik daude. Materiala edota informazio gehiago jasotzeko Jalone Astibia zinegotziarekin hitz egin dezakezue (948 510 310).

### *Igerilekuetako denboraldia*

Aurtengo igerilekuetako denboraldia hilaren 23an hasi eta agorraren (iraila) 9an bukatuko da. Ordutegia, goizeko 11etatik arratsaldeko 8ak arte izanen da. Aurreko urtean ez bezala, aurten hamar bainuetarako txartela eta familia txartela izanen dira (sahararr haurrak ere familiako bezala hartuko dira). Hauek dira aurten denboraldiko bonoaren prezioak: 10 urte artekoko haurrak 3.000 pta; 11-17 urteko gazteak 4.500; larriak 8.500 eta familiak 17.000. Eguneko sarrera 300 pta da haurrentzat (400 jai egunetan) eta 500 gazteentzat eta larrientzat (600 eta 800 jai egunetan).


FUNERARIA ZERBITZUAK
Lesaka-Doneztebe
MALDAERREKA, S.L.
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa saneamendua gasa
✆ 948 510086 / 510156 • fax: 948 610856 • LEITZA

ttipi ttapa
Zure publizitatea 7.000 etxetan sartuko da
✆ 948 631188


LARRALDEA
SAGARDOTEGIA
Bertan egindako sagardoa eta sagardotegiko menua
Telleria Auzoa • LEKAROZ
✆ 948 452121

## BAZTAN



Josetxo Lizarza, Mikel Goñi, Inaxio Errandonea eta Fernando Arretxe pilotari buruzko mahai inguruan, Elizondoko zahar etxean aspaldi egindako kultur astean.

# Kultur Astea Elizondoko zahar etxean

### Ekainaren 18tik 22rat ekitaldi ugari antolatu dituzte

RAKEL GOÑI

Elizondoko Francisco Javier Iriarte zahar etxean ekainaren 18an kultur astea hasiko da. 11etan meza izango da. 11:30etan Jose Ramon Ostizek behi eroei buruzko hitzaldia emango du. 15:00etan Senpereko lakura irteera egingo da. Ekainaren 19an 11etan meza ospatuko da, 11:30etan Isidro Bide Lagun taldeko koordinatzaileak hitzaldia emango du, inmigrazioa eta arrazakeria gaiak abiapuntutzat hartuta. Aratsaldeko lauetan Marsel magoak bere ikuskizuna aurkeztuko du. Ekainaren 20an, asteazkena, meza 10etan izango da ondotik Leire, Xabier eta Ilunberriko zintzurrera ateraldia egingo da. Bazkaria Xabierren bertan egingo delarik. Ekainaren 21ean, Ortzeguna, goizeko 11etan meza ospatuko da eta 11:30etan M.G. Herrera doktoreak hitzaldia emango du. Bertan aho garbiketa, ordezko hortzak nola garbitu eta era egokian mastekatzea gaiak jorratuko dira. Arratsaldeko lauetan Elizondoko bandak joko du eta ondotik Josune, Javier eta Fernandok abestuko dute, Orreaga Urrozek organoarekin lagunduko die. Kultur astea ekainaren 22an akituko da. 11etan egunero bezala meza izango da. 11:30etan Elena Ezkurdiak Bertizeko historiari buruzko solasaldia eskainiko du. Arratsaldeko lauetan dantza latinoak dantzatuko dituzte Carlos eta Merche eskolako ikasleek. Kultur astea akitzeko, bortzetan merendua egingo da eta Joxe Angel akordeolariak besta alaituko du.

## IKASTETXEAK



BAZTAN IKASTOLATIK BIDALIA

Maiatzaren 12an, Baztan Ikastolako ikasle, irakasle eta gurasoak "12 ordu lasterka" ekintzan parte hartu zuten. Arratsaldeko 3.30etatik 4.30etara txandaka lasterka ibili ziren Lekarozko zelaian.



Baztango eskoletako ikasle eta irakasleek bi ordutako geldialdia egin zuten maiatzaren 25ean GUK GURE eskola (euskalduna eta publikoa) lelopean. Herrietan hainbat ekitaldi antolatu ziren, txalaparta jotzea, pilota partiduak, aurpegiak margotu eta abar. Arratsaldean denak Iruñarat hurbildu ziren han egin zen kalejiran parte hartzeko. Antolatzaileek parte hartu zuten guraso, ikasle eta irakasleen erantzuna eskertu nahi dute.

## Bertso paper lehiaketa

Nafarroako XV. Bertso paper lehiaketan Lekarozen egindako saioan saridunak honako hauek izan ziren: LH 3-4, Amets Albertos; LH 5-6, Maite Erasun; DBH 1-2, Itziar Iantzi; DBH 3-4, Mertxe Berrueta. Saioak hiru zati izan zituen, lehenik bertso zaharrak abestu zituzten, bat bateko saio laburra ondotik eta akitzeko sari banaketa egin zen.



BAZTAN IKASTOLA

**Amets Albertos L.H. 3-4 mailakoen artean saritua.**


Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia · ☎ 948 580 013
ELIZONDO

Bierresenea
OSTATU - JATETXEA
*Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa*
Iturriotz Auzoa • ✆ 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

ARROPA DENDA
FANTXIKE
Gazteendako era guzietako arropa
Lanerako arropa

BAZTAN

# Arizkungo Sanjuanak ekainaren 22tik 25era

**Ortzilleria**
**Ekainak 22**

12etan besten hasmenta eta hameketakoa.
12.30 Txopo ta bandera goratzea herriko txistulariekin.
14.00etan Bazkarie txopo goratzaileendako.
17.00etan herri desafioa, 3 talde norgehiagoka.
21.30 Baztan-zopak.
Gaueko 12etatik aitzin dantzaldie Jalisko Band ekin. 5etan Ziztor jatea.

**Launbeta**
**Ekainak 23**

10.00 Argi soinuak.
11.00 Haurren jokoak.
14.00 Haurren bazkarie, ondotik gaztelu puzgarriek eta kars.
17.00 Herriko plater tiraketa.
21.30 San Juan suek eta ezkil jotzea.
22.00 Antzerkie:Sorgin dantza. 24.00 Dantzaldie Jalisko Bandekin. 5etan Zinger jatea.



**Arizkungo Elkartasuna taldeko dantzariak Elizondoko pilotalekuan aktuazio batean. Xutik ezkerretik eskuinera Mariano Izeta (†), Martin Goñi, Pedro Mari Mendikoa, Gregorio Ruiz de Larrinaga, Pio Jaurena eta Rafael Goñi. Belauniko ezkerretik eskuinera Maurizio Elizalde (†), Matias Maritorena, Manolo Viguria (†), Julian Elizalde, Migel Mari Salaburu, Faustino Goñi eta Felix Iriarte.**

**Igendia**
**Ekainak 24**

6etan Ezkil jotzea.
10etan Argi soinuak.
11etan Meza Nagusia
12etan Mutildantzak eta hameketakoa.
17.30 Itsasuko dantzarien emanaldia.
19.30 Kantaldia Bedaxagarrekin.
20.00-22.00 Dantzaldia Inazki taldearekin.
22.00 Mutil dantzak eta Gaita.
24.00etan Inazki taldea.
5etan Gasna jatea

**Astelehena**
**Ekainak 25**

10etan Argi soinuak.
12etan Mus ineztura.
14.00 Zikiro jatea Txorongo txarangarekin.
Ondotik herri poteoa.
20.00etan Dantzaldia-Joxe Angelekin.
22.00 Mutil dantzak eta Gaita.
24.00etan Dantzaldia Joxe Angelekin.
3etan Txopo botatzea eta besten amaiera.

FLASH

### Zozaiako Jauregia dorrea berreraikiko dute

Bianako Printzea instituzioak Oronozko Zozaia auzoan dagoen Jauregia dorrea berreraikitzeko 59 milioi eta erdi inbertituko ditu, paretak eta teilatua konpontzeko. Dorrearen jabeak, Martin Oharrizek, eraikinaren barnean egingo diren lanak ordainduko ditu. Barrideek bildu zituzten 3 milioiak ere konponketa lanetara bideratuko dira. Jauregia dorrea 1568an eraiki zuten eta 1995ean gertatutako sute batek dorrea arras hondatua utzi zuen, bortz urte geroago Bianako Printzea instituzioak Jauregia moldatuko zuela iragarri zuen.

### Zaldubia poligonoa urbanizatuko dute

Iruritan dagoen Zaldubia poligonoa urbanizatzea onartu du Baztango Udalak. Proiektua 1995ean aurkeztu zen baina bere aurka aurkeztu ziren helegiteak aztertu arte ezin izan da aurrera atera. Zaldubia poligonoa oso egoera kaxkarrean zegoen eta laster hasiko diren lanak behar beharrezkoak ziren.

Ostatua
Herriko Plaza • ✆ 948 453118 • ERRATZU

BERRO-BIDE

Traktore eta makinen konponketa eta salmenta.
✆ 948 453425 • ARIZKUN

IPARLA OSTATVA
• Egunero bokata eta pintxo berezi
• Igandetan salda
• Giro ona
Aduana karrika
☎ 948 453153
ERRATZU

ZUBIPUNTA OSTATUA
Besta onak opa dizkizuegu
✆ 948 453248
ERRATZU

Okindegia Jatetxea
Uxoa

☛ Okindegian
• Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
☛ Jatetxean
• Menua eta karta (asteburuetan)
• Espezialitate parrilan erretako jakietan
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labean errea. Goxo-goxoa!

BAZTAN

# Erratzuko San Pedroak ekainaren 28tik uztailaren 2ra

**Ortzeguna Ekainak 28**

2.00etan Ezkilak eta ...saferoa.

21.30etan Baztan zo... "Albantzenea" os... tatuan.

22.30 Rock kontzertua "Zubi punta" ostatuan.

**Ortzileria Ekainak 29**

10.00 Argi soinuak.

11.00 Meza Nagusia Baztango Udaleko ordezkariekin.

12.00 Herriko dantzariek.

12.30 Hameketakoa Ostatuan.

18.00 Ginkana herrikoia.

20.00 Dantzaldia Inazki taldearekin.

20.30 Mutil Dantzak. Ondotik su artifizialak.

00.30 Dantzaldia Inazki taldearekin.



MARKELEN

Erratzuko zikiroaren hasmenta 2000.urtean.

**Launbeta Ekainak 30**

10.00 Argi soinuak.

11.00 Herri jokuak.

12.30 Japoniar bonbak.

13.00 Ttikiendako bazkarie. (Txartelak 300 pezeta)

17.00 "Heritz" Magoaren aktuazioa.

20.00 Dantzaldia Ketxu taldearekin.

21.00 Kantaldia.

00.00 Dantzaldia Ketxu taldearekin.

**Igendia Uztailak 1**

10.00 Argi soinuak.

11.00 Txaranga.

13.00 Kantaldia Gaztelu taldearekin.

17.00 Pilota partiduak. Ondotik eskuararen aldeko kalejira Bizkargain fanfarrearekin. Antolatzailea: Erratzuko Kultur Elkartea.

20.30 Dantzaldia Alai taldearekin.

22.00 Kantaldia Iparlan: Panpi Portugal.

00.00 Dantzaldia Alai taldearekin.

**Astelehena Uztailak 2**

10.00 Argi soinuak.

11.00 Pilota partiduak Gorostapolon.

14.00 Zikiro jatea herriko frontoian, Bizkargain fanfarreak alaiturik. Ondotik magraren zozketa egingo da. Arratsaldean dantzaldia Joxe Angel akordeolariarekin argitu arte.

## FLASH

### *Berroetatik Iruritara doan errepidea kamioirik gabe.*

Zozaiatik hurbil dagoen kamioiak pisatzeko baskula saihestu nahirik, kamioilari askok Almandoztik sartu eta Berroetatik Iruritara doan bigarren mailako errepidea hartzea erabakitzen dute. Iruritatik hurbil dagoen zati bat erortzeko arriskuan dago eta pisu handiko ibilgailuek arrisku hau areagotzen dute. Guzti hau aztertuta Baztango Udala, Foru Poliziari eta Lan Publikoen arduradunei zuzendu zaie kamioiei handik pasatzen debekatzeko eta errepidearen arazoa ahalik eta lasterren konpontzeko.

### *Tomas Sobrinoren margo erakusketa*

Tomas Sobrino margolari baztandarraren erakusketa, Iruñeako Pintzel galerian ekainaren 23a bitarte irekita egongo da. Erletokieta karrikan 6. zenbakian dago eta nahi duenak 10etatik 13.30etara goizez eta 16.30etatik 20.00etara arratsaldez bisitatu dezake. Tomas Sobrinorekin batera Maite Orduña margolariaren lanak ere ikusgai egongo dira areto berean.

ETXEBERRIA OSTATUA
Ongi pasa herriko bestak!
✆ 948 453013
Karrika Nagusia 12 • ARIZKUN

BAZTANDARRA KOOPERATIBA
Baserritarren zerbitzurat
✆ 948 453310 - 948 453375 • Faxa: 948 456201
Ordoki Auzoa • ARIZKUN

ORDOKI LIKOREAK
Tel.: 948453410
Fax: 948453378
ARIZKUN
ERRETEGIA
Parrilan egindako haragi eta arrainak



DOLATXEA OSTATUA
Bestak ongi pasa!
✆ 948 453002 • ARIZKUN

ARIZKUN zerrategia
Zerrategia
Zurezko teilatuak
✆ 948 453 304
Dantxarineako errep.
ARIZKUN

ZUGARRAMURDI - URDAZUBI

# Musikaz betetako hilabetea 23ko gaupasarekin akituko da

Biriatura mendi ibilaldia eginen da igande huntan

Margari eta Koro

Udako besta-giroan buru-belarri sartu garela ez dugu ukatzen ahal: Urdazubiko bestekin batera Zugarramurdin «Ardanbera» fanfarrea ikusteko aukera izan ginuen. Ekainaren 3an, Urdazubiko elizan «Ipar doinua» abesbatza aritu zen. Ekainaren 9an Igantziko abesbatza izan zen Zugarramurdiko elizan. Eta hilabetean ongi akitzeko, ekainaren 23an lezeetako gaupasa daukagu, Eztanda taldearekin eta Niko Etxart kantariarekin aurten.



Ardanbera fanfarreak emanaldi ederra eskaini zuen Zugarramurdin.

### *Biriatura mendi ibilaldia igande huntan*

Igande huntarako, ekainak 17, mendi ibilaldia antolatuta dago. Honetan Biriatura izanen da, eta orain arte egin direnen artean luzeena izanen da: sei oren. Horretarako, usaian ateratzen den tenorea aldatuko da, goizeko 8etan atera beharrean 7etan aterako da. Luzeegia iduritzen zaienentzat, bertze bi aukera izanen dituzte: 9etan Lizuniagatik segitzea edo 11etan Ibardinetik.

### *Euroari buruzko solasaldiak*

Herri hauetan gauza serioak egiten direla erakusteko, ekainaren 5ean Urdazubiko eskolan eta ekainaren 12an Akelarre elkartean Nafarroako Kutxak antolaturik Euroari buruzko solasaldi arrakastatsuak izan direla aipatu behar.

ARKUPEAK

## Urrezko Ezteiak eta 85 urte bete dituztenei omenaldia

ttipi-ttapa

Arkupeak elkarteak, urtero bezala, omenaldia eskainiko die aurten 50 urte esposaturik bete dituzten bikoteei eta 85 urte bete dituzten bazkideei. Horretarako ekainaren 28an bilduko dira bazkaltzera Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan. Aitzinetik, hildako bazkideak gogoratuko dira mezan. Bazkalondoan dantzaldia izanen da.

Bertzalde, maiatza akabailan egitekoa zen Lizuniagatik Zalainerako ibilaldia eta autobus gidarien greba zela eta gibeleratu egin zen. Azkenean, ekainaren 21ean, ortzegunarekin eginen da. Goizeko 11etan abiatuko dira oinez Lizuniagatik. Ingurua autobusian ezagutzeko aukera ere izanen dute oinez ibili nahi ez dutenek. Etxalarko Bentan bazkalduko dute.

ARMUA Jatetxea
Zugarramurdiko karetera 3. Km
✆ 948 599 131 - URDAZUBI

Lanchas
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura orokorrak
Bera ✆ 948630735

LABE ZAR
✆ 948631076 • BERA

RESTAURANT MIGUEL
Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran
MIGUEL JATETXEA
Ibardingo Lepoa
✆ 948 631209

ESTHER
LOREDENDA • GARDEN CENTER
ESTHER FUNERARIA
24 orduko zerbitzua
IRACHE TANATORIOA
Aritzondo, Bergara auzoa • Tlnoa: 948580971 • ARIZKUN
Errepide Nagusia • Tlnoa: 948592200 • NARBARTE
Jaime Urrutia 39 • Tlnoa: 948580668 • ELIZONDO

BURKAITZEA
Zugarramurdiko bidea, 3 km
✆ 948 599280 • URDAZUBI

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA
CAFE DE LA MAIRIE
MAIXAN ETA VERONIQUE
SARA • TEL 0559542519

SARA

# Herriko Etxeak bi ordenagailu utzi ditu jendearen esku liburutegian

Bat Internet baliatzen ikasteko eta bertzea informatika arrunta egiteko

Aña Mari eta Fred

Herriko Etxeak bi ordenagailu utzi ditu jendeen esku herriko liburutegian: Bat Apezetxean dagoen Internet gunearen osagarria, nahi duenak ikas dezan Internet erabiltzen, eta bertzea informatika «arrunta»ren baliatzeko lehen urratsak eman nahi dituenarentzat. Bigarren ordenagailu hori langabetuek baliatzen ahalko dute, bertzeak bertze C.V.-en egiteko. Mediateka berria ekainaren 2an estreinatua izan da, eta geroztik asteazkenetan 10etatik eguerdi arte, larunbatetan 10etatik eguerdi arte eta arratsaldeko 4etatik 6ak arte idekia da. Formakuntza horiek segitu nahi dituztenek mediatekarat deit dezakete, 0559475309 zenbakia eginez.



Jon Maia eta Xabier Amuriza larunbatean Lastiryn.

### Bertsu afaria Lastiryn

Eusko Ikaskuntzak proposaturik, Xareta elkarteak bertsu afari bat antolatzen du ekainaren 16an, larunbatarekin, Lastiry jatetxean. Mikel Dalbret eta Jon Maiaren «Irudika Idurika» liburuaren inguruan antolatua da bertsu afaria, maila handiko bi bertsulari gomitatuz: Xabier Amuriza eta Jon Maia bera. Bertzalde, Mikel Dalbret-en eztanpa erakusketa izanen da lekoran berean. Afariaren prezioa 120 libera edo 3.000 pezetetan finkatua da. Lekuen atxikitzeko 0559542007 zenbakirat deitu behar da.

### Xoko finalak

Pleka trinketeko Xoko txapelketaren finalak hil hunen 30ean, larunbatarekin bururatuko dira. Finalak goizeko 9etan hasiko dira eta goiz osoan iraunen dute, hirugarren mailatik hasiz maila hoberena arte. Ondotik, Plekako jabeek aperitifa eskainiko dute eta bazkaria antolatuko dute. Izena emateko trinketera deitu behar da (0559542206).

FLASH

### Ostatu berria

Joan den maiatzetik goiti ostatu berri bat badugu herrian, «Keinu taberna» ideki baidute Martin eta Marie-Hélène Goienetxek, lehengo kinkaileriaren tokian. Bertan, jateko eta edateko ematen dute.

### Osasuna elkartea

Larunbat huntan, ereaaroaren 16a, Osasuna elkarteko aurtengo biltzar nagusia eginen da, arratsaldeko 7etan bere lokalean. Urteko konduak eta bulegoaren berritzea aipatuko dituzte. Ondotik aperitifa Herriko Etxeko Edantegian preziatuko dute eta afaria Lastiry jatetxean.

### Eskolen bestak

Ikasturte ondarra dugunez, eskola publikoak eta San Josepe eskolak bestak antolatuko dituzte. Biak polikiroldegian iraganen dira larunbatarekin arratseko 8etatik goiti: eskola publikoarena 23an eta San Joseperena 30ean.

AZKAINE

# 1901eko legearen mendeurrena ospatuko dute elkarte guziek

Ihintza, Angela eta Eneko

1901eko uztailaren 1ean, beharrezko lege bat bozkatua izan zen. Lege horri esker pertsona multxo bat elkartzen ahal da aktibitate baten garatzeko. Geroztik, milaka elkarte sortu eta sortzen dira urte guziz. Azkaingo elkarte guziak lege horren barnean sartzen baitira, ekainaren 24an, igandea, besta bat antolatuko dute.

Eguna mezarekin hasiko da. Gero, Kornelioko musikariek eta Gemukuren txalapartariek herriko plaza alegeratuko dute. Aperitifa plazako ostatuetan eta Erromano Zubian elgarretaratzea, bakotxak bere bazkariarekin. Animazio batzuk proposatuak izanen dira: musika, dantza, herri jokoak eta arratsaldeko 5etan, pilota partida plazan. Ondotik, Mutxikoak. Egunpasa bukatzeko, su-berria aintzin, Ikasleak taldeko gazteek dantzatuko dute. Poteoa ere antolatua izan da plazako ostatuetan. Bakotxak eguna baliatuko du bere elkartea aurkezteko pankarta bat eginez.



**«Amis du Jumelage» elkartasun taldeak 22. bidaia Bollendorf herrian antolatu du urtero bezala. Azkaindik abiatu, Ostiral Saindu gauean, eta larunbat eguerdan arribatu dira. Bollendorf-eko auzapezak eta elkartasun taldeko lehendakariak ongietorria egin diote. Ondotik taldea famili desberdinetan banatu da eta sei egunez inguruko herriak bisitatu dituzte.**



# EZKONTZAK

**Iñigo Javier Puente Henales** eta **Cavita Parmar**, Irurita eta Nueva Delhikoa (India), maiatzaren 28an.

**Jose Antonio Martin Parada** eta **Nuria Navarro Sanchez**, Iruñakoak Almandozen, maiatzaren 19an.

**Unai Apeztegia Petrirena** eta **Nerea Bidegain Otxandorena**, Ituren eta Elizondokoa, maiatzaren 26an.

**Alberto Liebana Larrea** eta **Marta Ugal Hernandez**, Irungoak Doneztebean, maiatzaren 25ean.

**Pedro Urbiola Landa** eta **Esther Tomasena Apezetxea**, Oteiza de la Solana eta Goizuetakoa, ekainaren 2an.

**Jose Antonio Moreno Makazaga** eta **Nerea Miranda Taberna**, Goizuetakoak, ekainaren 2an.



# JAIOTZAK

**Itxaso Estanga Otxandorena**, Doneztebekoa, maiatzaren 22an.

**Idoia Garde Garde**, Doneztebekoa, maiatzaren 27an.

**Beñat Verde Mugiro**, Elizondokoa, maiatzaren 24ean.

**Manex Ordoki Larramendi**, Berakoa, maiatzaren 18an.

**Jenifer Counil**, Sarakoa, maiatzaren 18an.

**Patxi Bonnehon**, Sarakoa, maiatzean.



# HERIOTZAK

**Jose Francisco Elorga Etxandi**, Ebetekoa, maiatzaren 24an, 68 urte.

**Miguel Baraibar Igoa**, Elizondon, maiatzaren 28an, 79 urte.

**Benito Salvador Lanaspa Rincón**, Leitzan, maiatzaren 2an, 59 urte.

**Javier Maria Zabalza Tarazona**, Leitzan, maiatzaren 2an, 57 urte.

**Modesto Cruz Irisarri**, Etxalarkoa, maiatzaren 27an, 63 urte.

**Jabiera Mitxelena Biurrarena**, Arantzakoa, maiatzaren 25ean, 84 urte.

**Patxiku Narbarte**, Sarakoa, maiatzaren 25ean, 84 urte.

**Maria Otxandorena Santesteban**, Saldiaskoa, maiatzaren 26an, 86 urte.

**Joaquin Mitxeltorena Andiarena**, Donamariakoa, maiatzaren 29an, 92 urte.

**Tomasa Otxoteko Lasaga**, Lesakakoa, maiatzaren 29an, 81 urte.

**Jose Maria Zubieta Etxeberria**, Etxalarkoa, ekainaren 6an, 85 urte.


**KULTURKARI**

**Inprenta lanak egiten ditugu**

- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu: zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin prezioik hoberena negoziatu eta listo!
Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

✆ 948 63 11 88




**Javiera MITXELENA BIURRARENA**

Maiatzaren 25ean Arantzan hil zen, 84 urte zituelarik.

*Gure gau ilunak*
*argituko dituen izarra.*
*Buruan bueltaka dabilen*
*irriaren oihartzunaren islada*
*Zu, gure bihotzin beti altxatuko*
*dugun amatxi mattia izango zara.*

FAMILIA.



**Juan Prudencio ITURRALDE AZKARRAGA**

Arizkungoa, maiatzaren 12an hil zen, 85 urte zituela

*Argi bat itzali da hemen lurrean*
*berri bat biztu da han zeru ederrean*
*gure oroimenean izanen zara betiko*
*ez agurrik ez adiorik, gero arte baizik.*

Haizea eta Zigor hilobak

MOTORRA

# Donamariako Peio Etxegia garaile Ibardingo I. Quad Igoeran

## Motoetan Jabier Altzugarai lesakarra eta Asier Apezetxea aranztarra nagusi

Ekainaren 3an burutu zen Beran, Katarri motoklub taldeak lehen aldiz antolatutako Ibardingo Quad Igoera. Momentuz, quad-ak gutti izaten direnez, ibilgailu hauetaz gain motoak ere izan ziren proban. Hamabi ibilgailu ateri ziren guztira eta hiru txanda egin behar zituzten, Beratik Ibardinera.

Quad-en artean, Donamariako Pello Etxegia izan zen azkarrena, hiru txandak elkartuta. Gainera, txanda bakarreko scrach edo denborarik onena ere Donamariako gidariak egin zuen, 3 minutu, 52 segundu eta 16 zentesima. Sailkapen orokorrean bigarrena Iñaki Txarandaka beratarra izan zen eta hirugarrena Ricardo Bazan.

Berez, quad lasterketa izanagatik, moto aunitz ere ikusi ziren Ibardingo maldetan. 125 eta 250 zentimetro kubikoen arteko lasterketan, Javier Altzugarai «Buruxuri» lesakarra gailendu zen. Bigarrena, Victor Jabier Villanueva izan zen.

250 eta 500 zentimetro kubikoen arteko lasterketan, Asier Apezetxea aranztarra izan zen azkarrena, Iñigo Oiartzabal eta Pedro Aristuren aitzinetik.

Ekitaldi arrakastatsua izan zen eta Iñaki Txarandaka antolatzaileak adierazi zuen bezala, irailaren 30ean izanen du segida, bigarren lasterketarekin.



GOIKO

**Eskualdeko gidariek maila ederra eman zuten: quad-etan borroka gogorra izan zuten Peio Etxegia eta Iñaki Txarandakak. Moto ttikietan Jabier Altzugarai lesakarra gailendu zen eta handietan Asier Apezetxea aranztarra.**

FLASH

### *Rafa Errandonea Espainiako finalean*

Rafa Errandonea pilotari aranztarrak, Otaegi azpeitiarrarekin bikote eginez, Espainiako bigarren mailako eskuz binakako txapelketaren finala jokatuko du ekainaren 24an Fuentetoban (Soria). Finalerdian 22 eta 21 irabazi zieten Urretabizkaia anaiei. Bertze finalerdia Tripita II eta Nicolasek eta Etxaniz II eta Urberoagak jokatu behar dute.

### *XLVIII. Salbatore Saria*

Urtxintxa-Aptiva taldeko Miguel Uriz Jaurrieta txirrindulari iruñearrak irabazi zuen maiatzaren 27an Iruritan burututako 48. Salbatore Saria. Junior mailako ziklistei zuzendutako 98 kilometroko lasterketa 66k hasi zuten eta 35ek akitu.

### *330 kilokoarekin ezin Saralegik*

Ez Orkoienen, ezta Tolosan ere, ez du Mikel Saralegi harrijasotzaileak 330 kiloko harria altxatzerik lortu. Denboraldi honetan ez da gehiago saiatuko.

## Iñaki TXARANDAKA *Katarri Motokluba*



### *"Asfaltoan quad-a motoa baino hagitzez ikusgarriagoa da"*

**Beran irabazi ez arren, Euskal Herriko eta Espainiako txapelketako probetan bikain zabiltza, ez da?**

Araba eta Errioxan egindako hiru probak irabazi ditut eta liderra naiz Euskal Herriko txapelketan, abantaila handiarekin gainera. Estatu mailan ere hagitz ongi gabiltza: bi txapelketa mota izaten dira, bata erresistentziakoa, hiru orduko probak dira, bi piloturekin eta nik Kataluniako lagun batekin hartzen dut parte normalean. Denetik izan dugu, suerte ona eta txarra ere bai. Madrilen egin genuen azken lasterketan seigarrenak izan ginen, baina gurpila zulatu eta llanta bat xehetu genuen. Horrek gibelera eraman gintuen, ordura arte bigarrenak baikinen. Bertzalde, krosean ere lasterketa onak egiten ari gara eta bortz lehenbizikoen artean gabiltza.

**Ibilgailu berria da Quad-a. Zer ezberdintasun du motoarekin?**

Quad mendian ibiltzeko egina dagoen tresna da, baina errepidean ibiltzeko moldatu egiten dugu. Egia erräteko hagitz abudo ibiltzen da, probaren batzuk egin ditugu Nafarroan barna eta pixkanaka gero eta hobekiago hartzen du jendeak. Asfalto gainean moto baten eta quad baten artean ez dago zerikusirik: hagitzez ikusgarriagoa da quad-a.

# AGENDA egunez egun

**EHIZA**

**BERA**

**Ekainaren 24an**
Plater tiraketa Lizuniagako tiro zelaian. Goizeko 10,30etan hasiko da eta partehartzaile guzientzat txistorra eta ardoa izanen da. Hiru lehendabizikoek Urrezko Ezteietako kopak eramanen dituzte.

**SOLASALDIAK**

**ARANTZA**

**Ekainaren 15ean**
Nafarroako Gobernuaren euskararen dekretuari buruzko solasaldia Zahar-Txokon, arratseko 8etan. Andres Iñigo euskaltzaina izanen da solasean.

**TXAPELKETAK**

**ETXALAR**

**Ekainaren 28an**
Etxalarko II. Trikitixa txapelketa, arratsaldeko etatik aitzinera.

**BERTSO AFARIA**

**SARA**

**Ekainaren 16an**
bertsu afaria Lastiry jatetxean, Xabier Amuriza eta Jon Maia bertsulariekin. Mikel Dalbret margolariaren eztanpak ere ikusgai izanen dira.

**KIROLA**

**BERA**

**Ekainaren 16an**
Berako IV. Herri Lasterketa.

**DONEZTEBE**

**Ekainaren 24an**
Herri Lasterketa.

**URREZKO EZTEIAK**

**LESAKA**

**Ekainaren 15ean**
Xehetasunak 11. orrian.

**ARKUPEAK**

**Ekainaren 28an**
Donezteben. 22. orrian.

## TELEBISTAKO TXOKOA




# TTIPI-TTAPA TELEBISTA, adin guzietako ikusleentzat

Adin guzietako jendeek dute beren tokia TTIPI-TTAPA TELEBISTAN, eta hurrengo hamabortz egun hauetan horren adibide garbiak izanen ditugu.

Alde batetik, eskualdeko haur gehienek ikasturtea bukatuko dute laster eta herriz-herri eskola eta ikastoletako bestak eginen dira. Baina, aldiberean, erretiratuak ere ezin ditugu inolaz ere ahantzi. Lesakako San Fermin jubilatu elkarteko kideek, erraterako hilaren 14ean ospatuko dute urteroko besta, beti bezala Nafarroako kutxaren laguntzarekin. Gu ere han izanen gara, beraien hitzak eta irudiak biltzeko. Bertzalde, hilaren 21ean, Arkupeak jubilatu elkarteko kideek mendi ibilaldia eginen dute Berako Lizuniagako bizkarretik Zalaineraino. Ibilaldi ederra egiteaz gain, gero bapo bazkaltzeko modua izanen dute Etxalarren. Baietz batzuek nahiz bertzeek bikain pasa! Guk behintzat hala uste dugu eta horregatik bi egunetan han izanen gara gure kamara eta mikroa eskutan hartuta.

Gainerakoan, herriko bestak gain gainean ditugu, beraz, adi gure telebistan egunero bilduko ditugun irudiei, batez ere Doneztebe aldean, han hasiko baita gure bestaz bestako ibilbidea. Oroitu bada, astelehenetik ortziralera arratseko 9etan izanen dela gure emisioa eta goizeko 11etan, 1etan eta arratsaldeko 5etan errepikapenak. Sintonizatu gurekin eta San Pedroetako hoberena jasoko duzu ordainean, dudarik ez egin.

## DISKAK




*«Gorria»*

**Akelarre**

*SEA SOAR ETA ABAR*

Hogeitazortzi urterenondotik (aisa erraten da) oraindik bizirik dirau Euskal Herriko plazetako talde mitiko honek, eta honekin dagoeneko beren hamabosgarren diskoa dute karrikan. Epe luze honetan aldaketa franko izan da taldearen barnean, baina hala ere horbe segitzen dute bortz taldekideek plazarik plaza: Juanpa Agirre (ahotsa), Xanet Arozena (gitarrak eta ahotsak), Xabi Zubeldia (akordeoia, teklatuak eta ahotsak) eta Pako Diaz (bateria) dira Akelarreko taldekideak.

"Gorria" izeneko disko honetan hamaika kanta sartu dituzte: *Kalera, Hitzak, Danzin, Lumaia, Na-ska, Laxok, Hemen gaude, Eba, Karibe, Amaiurra* eta *Mendian gora.* Inguru honetan zaletu aunitz dituela, beraz, ezin faltako da guzi hoien apaletan Akelarreren azken disko hau.

## BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Maiatzaren 11tik 18rako prezioak)

### ZERRIKIA



**Zerrikumea**
(19 kilo): 8.900 pta.

**Zerri gizena**
(95-100): 258 pta/k.

**Zerramak:**
168/178 pta./kiloa, bizirik.

### BEHIKIA



**Aretze gizenak:**

**Idixkoak: Pta/kg. Kanal**

| | |
|---|---|
| **Extra** | 475 |
| **1.koa** | 455 |
| **2.koa** | 435 |

**Urruxak: Pta/kg. Kanal**

| | |
|---|---|
| **Extra** | 485 |
| **1.koa** | 465 |
| **2.koa** | 445 |

Oharra: Prezioak 200-230 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Nabarrak:** urruxak 38.000 eta idixkoak 31.000 Pta.
**Mestizoak:** urruxak 40.000 eta idixkoak 42.000 Pta.

**Zaldikoak: Pta/k**
Sortuberriak: 555/565
Zaldi-behorrak: 375/385

**Bildotsak: Pta/k**
6-8 kilokoak: 975-1.025
8-10 kilokoak: 850-900

## JAKIN BEHARREKOAK




# Arropetako etiketak

**Galtzak, jertseak nahiz kuleroak erosten ditugularik etiketetan agertzen den neurria eta prezioari erreparatzen diogu batez ere, batzuetan ongi kostata gainera, bainan etiketa horietan badira bertze zenbait datu interesgarri.**

Arropetan egoten diren etiketek informazio erabilgarria ematen digute: lantegiaren datuak, produktuaren osagaiak, eta beraz, nola erabili behar dugun arropa horrek gehiago irauteko. Horregatik, garrantzitsua da etiketan, zer datu eta nola agertzen diren jakitea.

Etiketa irakurtzen dugunean arroparen prezioa eta neurria besterik ez dugu ikusten; horrez gain beste gainerako informazioa interpretatzeko argibideak emango dizkizugu.

### Nahitanahiez agertu beharreko datuak

Arropa guztiek nahitanahiez eduki behar dituzte ondoko datu hauek:

- Egin, inportatu edo merkaturatzen duen enpresaren datuak, eta enpresaren industria erregistroko zenbakia, identifikazio fiskaleko zenbakia edo marka erregistratua.

- Arroparen osagaiak: Arropa egiteko ehun edo tela mota bakarra erabili bada, %100 edo dena jar dezake, eta erabilitako ehun zuntzaren izena ondoren.

Ehun konposatuak izanez gero, ehun desberdinak portzentaien bidez adieraziko dira, eta ehunekoak handienetik txikienera joango dira.

Ehun batek produktuaren pisuaren %85a badauka, ez da beharrezkoa beste osagaiak aipatzea.

Zenbait ehun badaude eta bakarrean ez badira guztiaren %10a baino gehiago, "beste batzuk" erabil daiteke, eta ondoren osatzen duten portzentaia osoa adieraziko da.

EKA
EUSKAL HERRIKO
KONTSUMITZAILEEN ANTOLAKETA

## LIBURUAK



*Irudika idurika*

**Mikel Dalbret eta Jon Maia**

*GATUZAIN*

Margoz eta bertsoz osaturik dator Mikel Dalbret marrazkilari saratarra eta Jon Maia bertsolari zumaiarraren artean egindako liburu eder hau. Iraganetik etorkizunera igarotzea ahalbidetzen duen lana da beraiena, Ama Lurraren barrunbeak zein zeruko astroak ikusarazi, eta bizi dituzten izakiak ezagutzera ematen dituena. Mendeak pasa ondoren, gaurko egunerarte iraun duen zibilizazio baten arrastoak, denboraren pasaieraren lekuko isilak izatearí uko eginez, margoz eta bertsoz biziberriturik agertzen zaizkigu, muga oro gaindituz, hegoa iparrarekin, iparra hegoarekin, bertsoa margolaritzarekin, eta margolaritza munduarekin lotzen duen zubia baita Mikel Dalbret eta Jon Maiaren artean egindakoa.

Ekainaren 16an liburu honen aurkezpena eginen da Lastiry jatetxean, bertso afari baten bitartez. Mikel Dalbreten eztanpak ikusgai egonen dira jatetxeko paretetan.

# AGENDA
## egunez egun

### BESTAK

**ARIZKUN**
**Ekainaren 22tik 25era.** Xehetasunak 20. orrian.

**DONEZTEBE**
**Ekainaren 28tik uztailaren 2ra.** Xehetasunak erdiko gehigarrian.

**ERRATZU**
**Ekainaren 28tik uztailaren 2ra.** Xehetasunak 21. orrian.

**SALDIAS**
**Ekainaren 22tik 25era.** Xehetasunak 16. orrian.

### GAUPASAK

**ZUGARRAMURDI**
**Ekainaren 23an** ospatuko da aurten Zugarramurdiko akelarrea.

### IKASTAROAK

**BERA**
**Ekainaren 22an** akatuko da Axura elkarteak antolatutako clown ikastaroan izena emateko epea (948 456011, Isabel). Ikastaroa uztailaren 22tik 27ra emanen du Kultur Etxean Ramon Albisturrek.

### GUARDIAKO BOTIKAK

**Ekainaren 11tik 17ra**
Bera, Sunbilla, Irurita eta Goizueta.

**Ekainaren 18tik 24ra**
Etxalar, Ituren, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

**Ekainaren 25etik uztailaren 1era**
Igantzi, Narbarte, Elizondo (Iturraide), Leitza eta Goizueta.

## ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

# MERKATU TTIKIA

**00-34 948 63 11 88**

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

### ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

**ETXEBIZITZAK**
- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

**GARAJEAK/LOKALAK**
- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

**LURRAK/ORUBEAK**
- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

**LANA**
- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

**MOTORRA**
- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

**DENETARIK**
- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**
- 801. Agurrak

**ETXEBIZITZAK**

### 101 SALDU

**LESAKA.** Antoiu karrikan 85 m²ko pisua salgai. ☎ 948 637 333 (eguerdietan eta 19etatik aitzinera).

**BERA.** 79 m²ko pisu mobleztatua salgai. ☎ 948 630 943.

**BERA.** Pisua salgai Agerra auzoan. Mobleztatua. ☎ 652 715 050.

**Tele inmobiliaria**
Eskaera handiagatik bordak, baserriak, etxeak, pisuak eta lur-eremuak behar dira.
✆ 948 630 601

**ADOS**
- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajerak etab. erosi nahi dira.
✆ 948 451 841
607 978 656

**ETXEBIZITZAK**

### 104 Errentan hartu

**BERA.** Pisua errentan hartu beharrean nago. ☎ 948 625 000 (Gerardo).

**ETXEBIZITZAK**

### 105 Etxe konpartituak

**LEITZA.** Leitza inguruan uztaila eta abuztuan baserri batean biziko nintzateke. Baserriko bizia ezagutu, lanean lagundu eta euskara aberasteko. ☎ 948 268 014.

**IRUÑEA.** Bi ikasle euskaldun behar dira pisua osatzeko. ☎ 948 510 190 (egunez).

**GARAJE-LOKALAK**

### 109 Errentan eman

**ELIZONDO.** Ostatua traspasatzen da. Errenta ttikia. ☎ 948 585 016.

**LESAKA.** Bajera errentan emateko. ☎ 948 210 990.

**BERA.** Arraindegia traspasatzen da. ☎ 948 631 124.

**LANA**

### 301 Eskariak

38 urteko **emakume batek** haurrak edo adinekoak zaintzen edo etxeak garbitzen lan eginen luke. Autoa badut. ☎ 948 452 432.

**Neska esperientziaduna,** inguruko herriko bestetan lan egiteko prest egonen litzateke. ☎ 639 961 223.

**Neska** eskaintzen da lan egiteko. Makina industrialekin josten badakit. ☎ 948 637 562.

**Obra-hondakinak** eta txatarra biltzen ditut. ☎ 948 630 858 (Juan).

**LANA**

### 302 Eskaintzak

Berako jatetxe batean udan lan egiteko **kamarera** behar da. ☎ 948 630 392.

Esperientziarik gabeko **elektrizista** behar da hotzaileekin lan egiteko. ☎ 639 1[illegible] 305 (Indarri Instalazioak).

Etxalarko jatetxe batean zerbitzaria behar da lehenbai lehen. ☎ 948 635 280.

Esperientziadun **makinis**[illegible]

**ARANTZA ZURGINDEGIA**
José Miguel [illegible]
Klase guztiko zurgin lanak
Otsaura ✆ 948 63[illegible]

Alicia T. [illegible]
OFIZIALE GUZTIAK
SERVI - LAN.
Elizagibela, 3 - [illegible]
Tel. 948 [illegible]

Ukrainiako pailentak gisa garbitzailea koadrilak egiten di[tu]
(errotulazioa, pisuak, ...)

**ADOS**

**SUNBILLA:**
**14 etxe elkar atxikiak**

14 etxebizitza modalitate librean
106 m² + 50 m² garaje + lur zatia = 23.900.000 Pts.



Hasiak gara erreserbak egiten.

Argibideak:
✆ 948 451 841
607 978 656

## IGANTZIko UDALA

**ESTOBONAGAKO URBANIZAZIOA: UA1, UA2, UA3, UA4, UE1 eta UE2 UNITATEAK**

Igantziko Udalbatzak, 2001eko maiatzaren 3an egindako batzarrean, bertzeak bertze ondorengo akordioak onartu zituen:

1) Igantziko Estobonaga alderdiaren UE1, UE2, UA1, UA2, UA3 eta UA4 unitateen mugaketa hasiera batean onartzea.

2) Igantziko Estobonaga alderdiaren UE1, UE2, UA1, UA2, UA3 eta UA4 unitateen xehetasun azterlana hasiera batean onartzea.

3) Igantziko Estobonaga alderdiaren UE1 eta UE2 unitateen repartzelazioa hasiera batean onartzea.

4) Aipatutako espedientea eta proiektuak jendaurrean hamabortz egunez paratzea, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta probintziako egunkari batean argitaratzen denetik kontaturik, interesatuek aztertu eta bidezko alegazioak aurkez ditzaten.

Igantzi, 2001.05.23

ALKATEA, Eduardo MIGELENA LEGASA

...a da retroarekin artza-
... 629 219 068.

## MOTORRA
### 501 Salerosketak

...ko **Yamaha YZ** motoa ... 95ekoa. Egoera one-... 395.000 pta. ☎ 677 742 ...

...**ssan Patrol** NA-S salgai, ... ☎ 948 514 145.

...**kswagen Passat** salgai. ... 948 630 858.

...**furgoneta isotermoa** sal-... Ekonomikoa. ☎ 948 631 ...

## MOTORRA
### 502 Tailerrak


BOAN TAILERRA
CITROEN Banatzailea
AUTO BERRIEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 948 63 06 23 • BERA

MENDAUR MOTOR
© 948 450333 • DONEZTEBE
Bigarren eskuko kotxeak:
Ssangyong Musso TDI 5 ate, Vectra TD, R19, Citröen Xsara, Mitsubishi, R Expres, C15, Clio D.
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

GANIX Tailerrak
... 9 • © 948 630689 • BERA
IBILGAILUEN MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua


## ANIMALIAK
### 601 Emateko

Urte bateko **artzain zakurra** oparituko nuke. ☎ 948 630 756.

Hilabete bateko **artzain txakurkumeak** oparitzen dira. ☎ 948 387 009.

## ANIMALIAK
### 602 Salerosketak

Bi urteko **ahari mutur gorria** salgai. ☎ 948 451 696 (goizeko 9etatik 9,30etara).

Basurde ehiziko hiru urteko **zakur arra** salgai. ☎ 948 387 098 edo 608 202 095.

Cocker Spanier ingeles **zakurkumeak** salgai, beltzak eta gorriak. ☎ 948 637 519 - 677 594892.

## DENETARIK
### 701 Galdu-aurkituak

Lesakan, zilar koloreko **erlojua** galdu da Mastegi futbol zelai berriaren inguruan, maiatzaren erdian. ☎ 948 637 867 (Lidia).

Artzai euskaldun arrazako **zakurra** galdu da. Xuria da eta "Galdu" izena du. ☎ 948 631 119

**Ardi-zakur handia** aurkitu dugu Izun. Ile luzeduna, buria, gaztea. Koadrodun kolarrarekin. ☎ 948 393 131.

## DENETARIK
### 702 Salerosketak

**Pianoa** salgai, ia berria. Afinatu berria. ☎ 670 252 202.

**Sega-makina** diesela, AE-VI markakoa salgai (segadora eta rotabatorra batera). ☎ 943 528 185 (Deitu goiz, eguerdi edo gauetan).

**Egurrezko sukaldea** salgai, gutti erabilia. ☎ 948 635 267 (arratsaldez).


Hizkuntz Eskola
Elduaien

30 urte

**Udako ikastaroak**

*Ingelesa ikasi nahi duzula?*

*Zatoz Elduaien Hizkuntz Eskolara*
*Uda honetan baduzu aukera Elduaien Hizkuntz Eskolan ingelesa ikasteko ongi pasatuz. Haurrak eta helduak.*
*Matrikula epea: EKAINA*

*1996. urteko zerbitzu onenaren aitzindari*

- Euskara
- Ingelesa
- Frantsesa
- Alemana
- Gaztelera
- Italiera

☎ 948 510 635



*Ingelesa ikastea ez da hain gerraria. Hemendik aurrera 3.500 ... aurrera ... (4-9 urte bitartean) gaur egun hain beharrezkoa den hizkuntza hau ikasteko aukera izanen dute berrian.*


CAN
Besta
Zoriontsuak!
NAFARROAKO KUTXA




# Leku aldatzea ekainaren 15ean!

## Bulego berria ezagutzera pasa zaitezten gonbidatzen zaituztegu

## Helbide berria:

**Euskadiko Kutxa - Caja Laboral**
**Kanttonberri 5**
**31780 BERA**
**Tel.: 948 630062 - 948 630451**

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Erantzun